

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Etxebarria



Aurkibidea

Udalerria: Etxebarria

Sarrera



Lea-Artibaiko herri txikia da. Iparraldean eta mendebaldean Markina-Xemein, hegoaldean Mallabia eta Eibar, eta ekialdean Elgoibar ditu mugakide. Industria da jarduera ekonomiko nagusia (metalurgia, lantegiak eta elikagai-industria). Etxebarriako auzo nagusiak honakoak dira: Altzaa, Aulesti, Erbera, Galartza eta Unamuntzaga. *Argazkia: Asier Sarasua*

- **Biztanleak:** 812
- **Euskaldunak:** %96,16

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **62**
- Zintak: **66**
- Pasarteak: **329**
- Transkribatutakoak: **23**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **328**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Berritxu bihotzean, eten bako taupada
- Dialektologia-EHU
- Ermuko eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkaria
- Etxebarriko ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- Gazte gara gazte
- IRLAren Bizkaiera Bilduma
- Lea-Artibaiko ahotsak
- Markina-Xemeingo ahotsak
- Markina-Xemeingo hezkuntza publikoa (1844-2025): hazitik lorera

Hizlariak



Rikardo Aginaga Madariaga (1925-2014)

Antsotegi Torre baserrikoa.

Jesusa Aierdi Egurrola (1929)



Iremategi baserrikoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

I

Antxon Alberdi Barrutia (1990)



Antxon Etxebarrian jaio zen. Aita bertakoa du eta ama markinarra. Aita zesta punta jokalaria zenez, txikitatik Ameriketan ibili izan da. Hamaika urte zituenetik Etxebarrian bizi da guraso eta anai-arreba bikiekin. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua ikasi zuen Gasteizen eta federazioan lanean jardun zuen arren, elkarrizketa egin zitzaionean master bat ikasten zegoen. Txikitatik ibili da zesta puntaren inguruan, Mexikon ere ibili izan da jokatzeko. Elkarrizketa Berriatuko zesta eskolan kide zuen [Julen Iriondo](#)rekin egin zitzaion.

Mertxe Alberdi Maruri (1934)

Pionekoa.



Mari Kruz Ansola Ugarte (1950)

Aitana Aransolo Kalzakorta (2006)

Etxebarriko Errotabarri baserrikoa. Etxebarriko eskolan ibili zen 2 urtetik 6. mailara arte, eta gero Bekobentan egin zuen DBH.

Jabier Arrieta Lejardi (1925)



1925ean jaio zen Barendia Behekoa baserrian, bederatzi neba-arrebatan azken-aurrekoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Munitibarkoa. Eskolara gutxi joan zen eta ikasi zuen apurra gau-eskolan ikasi zuen. 14 urterekin Ugarteburura joan zen morroi eta lau urte egin zituen bertan. 18 urtetik 21era, berriz, Aldekon egon zen morroi. Gerra garaiko bizipenak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2009an.

Mari Jose Arrieta Maguregi (1964)

Etxebarriko Arostegi baserrian jaioa. Etxebarriko eskolan ibili zen 4. mailara arte, eta ondoren, Bekobentan ikasi zuen.

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria (1963)

Etxebarriko erdigunean jaioa, Erribera kalean. Hiru senidetan gazteena da Yolanda (lautik hiru atera ziren aurrera). Gurasoak etxezainak ziren: etxea zaintzearen truke bizi ziren bertan. Baratza eta animaliak zituzten. Horretaz gainera, ama jostuna zen eta aita Markinara joaten zen lanera, Esperantzanera; baina afizioz musikoa zen: banda militarrean egin zuen soldaduzka eta gero Markinako udal bandan jo zuen urte askoan. Yolanda herri eskolan ibili zen, eta ondoren Lanbide Heziketa egin zuen Markinan. Bergarako UNEDen euskarako D titulua atera ostean (geroko EGaren parekoa), Ondarroara joan zen UBI egitera. Magisteritza ikasi zuen Eskoriatzan, eta Antzerkia Donostian. Gerora Antropologia ikasketak ere egin zituen. Idazlea da, eta ipuin-kontalaria. Idazketa sortzaileari buruzko tailerrak ematen ditu, eta baita irakasleentzako Haur eta Gazte Literaturako formazioak ere, eskoletan. Euskadi Saria eskuratu zuen 2015ean, "[Argiaren alaba](#)" lanarekin. Bere azken lanean etorkizunerantz egiten du txango, gazteentzako ATĀRIA nobelan.



Kristina Barinagarrementeria Baskaran (1925)

Etxebarriko Ibaun etxekoa.

Patxi Barinagarrementeria Baskaran Ibaun (1917-2012)

Etxebarriko Ibaun etxekoa. Gerrako bizipenak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2011n ([ikusi euren webgunean](#)).



Juanita Barruetabeña Guenaga (1925)

Etxebarriko Basabe baserrikoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Juanita
Barruetabeña



Josefa Baskaran Balentziaga (1929-2016)

Etxebarriko "Aiste Nagusi" baserrikoa. [Julia](#) ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa Gerra Zibilaren inguruko kontuak jasotzeko.

Julia Baskaran Balentziaga (1932)

Etxebarriko "Aiste Nagusi" baserrikoa. [Josefa](#) ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa Gerra Zibilaren inguruko kontuak jasotzeko.

Aitor Bereziartua Urkidi (1970)

Etxebarriko Lobianoerota (Lomiñoerota) baserrian jaioakoa. Bekobentan ikasi zuen 5 urtetik OHO bukatu arte.



Amaia Bergara Urkidi (1967)

Etxebarriko Iriguenaldekoa baserrian jaioakoa. Lehenengo Barinagako eskolan ibili zen, eta gero Bekobenta eskolan.

Pablo Bergara Urkiola (1936)



Etxebarriko Irun-aldeko baserrian jaio zen 1936an. Berak egun batzuk zituela iritsi zen gerra Etxebarrira. Etxean entzun izan zuen bere aitona, Bizente Bergara, Bilbon kartzelara eraman zutela. Gerraren inguruko kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2011n ([ikusi euren webgunean](#)).



Jose Manuel Elu Azumendi (1961)

Etxebarriko Andrinuazpikoa (Andreuazpi) baserrian jaioakoa. Iturretako eskolan ikasi zuen 5-12 urte bitartean, eta 12-14 bitartean Bekobentan.

Jesusa Espilla Sololuze (1924-2015)



1924an jaio zen Etxebarriko Beide baserrian. Ama Larruskaineko Egizaun baserrikoa zuen eta aita Beidekoa bertakoa. Zazpi neba-arrebatatik bigarrena da bera. Umetan Etxebarriko eskolara joan zen. Bere ama Elgoibarreko eta Soraluzeko plazara joaten zen gurdiz baserriko generoa saltzera. Bilbon jantzigintza ikasketak burutu zituen eta gerra ostean, neskame lanetan aritu zen Algortan hiru urtez, Bilboko Carlton hotela eraiki zuenaren anaiaren etxean, Smithtarrenean. Auzo bereko senarrarekin ezkondu eta handik gutxira Markina-Xemeinera joan zen bizitzera, 1958an-edo. Bi alabaren ama. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Josepa Espilla Sololuze (1922-2015)

1922an jaio zen Etxebarriko Beide baserrian. Ama Larruskaingo Egizaun baserrikoa zuen eta aita Beidekoa bertakoa. 7 neba-arreba ziren. Mallabiko Arandaño auzoko Bengoetxe baserrira ezkondu zen. Etxekoandrea, baserritarra eta ortuari saltzailea. IRALEkoek egin zioten elkarrizketa bat 1989an eta *Ahaztuen Oroimena* taldekoek beste bat 2012an, gerrako bizipenak jasotzeko.

Joseba Etxaniz Etxaburu (1988)

Etxebarriko Gandiagaerrotan jaiotakoa. Etxebarriko eskolan ibili zen 3 urtetik 6. mailara arte eta gero Bekobentan egin zuen DBH .

Juan Etxebarria Eizagirre (1929)

Asun Gandiaga Urkidi (1930)



Subistigoikoa baserrian jaio zen 1930ean. Artean umea zela harrapatu zuen gerrak, eta Santa Grazin egon ziren. Gerrako bizipenak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2008an ([ikusi euren webgunean](#)).

Teresa Garagarza Osoro (1936-2014)

Etxebarriko Goikone baserrikoa.

Mari Karmen Gerrikabeitia Garramiola (1929)



Etxebarriko Zuloeta baserrian jaio zen. Lau neba-arrebatatik nagusiena izan da eta neska bakarra. Gerra sasoiari soldaduak sartu zitzaizkien etxera eta alde egin behar izan zuten. Gerraostean, Ondarroara baserriko jeneroa saltzen atera zuten bizimodua. Etxebarritik asko joan izan dira Markinara eta elkarrizketa garaian ere bertan bizi zen Mari Karmen. Berarekin egon ginenean, baserriko lanez, gerrako kontuez eta Markinako jaiez hitz egin zigun, besteak beste.

Juana Frantziska Goikoetxea Balenziaga (1932-2014)



Urtzulon jaio zen 1932an. Bera jaio eta hamabost egunera ama Donostiara joan zen "aña" gisa, Comillas markesaren era. Handik Ingalaterrara ihes egin zuen amak Comillastarrekin, eta gerra ostean buletatu zen. Eurak, berriz, Makuteira joan ziren gerra garaian eta egoera lasaitu zenean itzuli ziren etxera. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa 2012an, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Manuela Guenaga Ibarzabal (1927)

Etxebarriko Arentza baserrikoa.

Maria Guenaga Ibarzabal (1935)

Etxebarriko Arentza baserrikoa.

Patxi Guenaga Sarasua (1934-2016)

Etxebarriko Atsoinzabal baserrikoa.

Alberto Guenaga Yague (1934)

Zabala baserrikoa. [Felix](#) anaiarekin batera egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek, gerra garaiko bizipenak jasotzeko.

Felix Guenaga Yague (1939)

Zabala baserrikoa. [Alberto](#) anaiarekin batera egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek, gerra garaiko bizipenak jasotzeko.

Agustin Guenaga Zelaia (1931-2015)

Etxebarrian jaio zen, elkarrizketa egin genionean bizi zen etxe berean. Etxearen azpian beti eduki izan dute jateko-denda. Gerra aurrean zabaldu zuten gurasoek, hiru-lau abarketa parerekin. Gerran miliazianoek hartu zuten denda, baina gerraostean berriro eurek hartu zuten eta errazionamendua banatzen hasi ziren. Honez gain, estraperloko produktuak ere saltzen zituzten. Kotxea erosi zuen lehenengotarikoa izan zen Agustin herrian. Beronekin baserriko produktuak erosi eta Eibarko plazan saltzen zituen. Dendan egindako lanaz, gerrako kontuez, erlijioaz eta gaztetako sasoiak hitz egin genuen berarekin egon ginenean, besteak beste. [Jesusa Urkidi](#) andrearekin eta [Maribel Guenaga](#) arrebarekin batera egin genion elkarrizketa.



Maribel Guenaga Zelaia (1941)

Etxebarrian jaio zen, eta bi neba-arrebatatik gazteena da. Etxearen azpian beti eduki izan dute jateko-denda eta eurek goian bizi izan dira beti. Gerra aurrean zabaldu zuten gurasoek, hiru-lau abarketa parerekin. Gerran miliazianoek hartu zuten denda, baina gerraostean berriro eurek hartu zuten eta errazionamendua banatzen hasi ziren. Honez gain, estraperloko produktuak ere saltzen zituzten. Dendan egindako lanaz, gerrako kontuez, erlijioaz eta gaztetako sasoiak hitz egin genuen berarekin egon ginenean, besteak beste. [Jesusa Urkidi](#) koinatarekin eta [Agustin Guenaga](#) nebarekin batera egin genion elkarrizketa.



Txomin Ibarluzea Garro *Kutxillo* (1929)



Etxebarriko Saratsibar baserrian jaio zen eta bertan eman du bizimodu osoa. Aita baserrikoa bertakoa zuen eta ama Bolibarkoa. Bost anaia izan dira, Txomin bigarrena, eta ume zirela ama barik geratu ziren. Ipar Ameriketan lortutako diruarekin altxatu zuen aitak Saratsibar baserria. Izekoak ere Argentinara joandakoak izan ditu eta baita anaiak ere. Txomin, hala ere, baserrian geratu zen eta zortzi urte zituela basoko beharrak egiten hasi zen. Gero, ofizioa ikasi eta Ansola lantegian eman zituen hamazazpi urte. Herri kiroletan zaletasun handia eduki du, idi eta asto probetan batez ere, eta gaztetan hainbat desafio eta joku egindakoa da. Gaur egun ere astoak gobernatzen ditu semeak probetan erabil ditzan. Idi eta asto probez hitz egin genuen berarekin egon ginenean, baserriko beharrez, gerra zibilaz eta antzinako bizimoduaz, besteak beste. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerra garaiko kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).



Antonio Ibarzabal Bereziartua (1927-2013)

Etxebarriko Altzolazarra baserrikoa. Gerrako bizipenak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2011n ([ikusi euren webgunean](#)).

Julen Iriondo Gisasola *Reto* (1995)



Julen Eibarren jaio arren, hiru urte zituela Etxebarriara joan zen bizitzera. Aita Etxebarriakoa du eta ama Eibarkoa. Bi anai-arrebatatik zaharrena da. Hamazazpi urte zituenetik lanean dihardu eta umetatik kirol desberdinen inguruko zaletasuna izan du: txirrindularitza, futbola edo plater-tiroketa, besteak beste. Elkarrizketa egin aurreko urteetan, batik bat zesta puntan ziharduen. Elkarrizketa [Antxon Alberdi](#)rekin egin zitzaion, elkarrekin Berriatuko zesta eskolan zebiltzala.

Agapito Iruguenpagate Arizmendiarieta Apitxo Urrusolo (1923-2001)



Etxebarriako "Galartza" auzoko "Urrusolo" baserrian jaio zen 1923an eta neba-arrebatan bigarrena izan zen. Bibiana Solozabal Arriagarekin ezkondu eta alaba bat izan zuten, Teresa. 300 urte baino gehiago martxan zerraman "Urrusolo" errostatik eta baserriko ganadu zein laborantzatik bizi izan ziren, labe-sua egin eta azokan generoa salduz. Errotaren kargu bere aita, aitita eta haren aita ere ezagutu izanak ofizioa eta haren gorabeherak ondo baino hobeto ezagutzeko aukera eman izan dio. Oso lexiko aberatsa da berea. Jaio zen etxe berean hil zen 2001. urtean. "Drogetenitturrin", Ermua eta Mallabiko herri aldizkarian eta 2000ko urrian argitaratutako 73. alean, artikulu batean jasotzen dira bere esanak "Antzinako erara ixotako arturuna" izenburuarekin.

Jose Juaristi Zubizarreta (1941)



Unamuntzaga auzoko Baltzolabekoa baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak ere etxebarritarrak zituen, ama Saratsukoa eta aita Baltzolakoa bertakoa. Umea zenean, ez zegoen biderik baserrira eta andabidetik jaitsi behar izaten zuten herrira. Urte batzuetara, basoko beharretatik irabazitako diruarekin egin zuen Josek bidea baserriraino. Hortaz, baserriko eta basoko beharretan aritu izan da beti Jose. Bestalde, ez zuen aukera handirik eduki eskolara joateko; izan ere, eguraldi txarra zegoenean ezin izaten zuten herrira jaitsi eta askotan baserrian geratu behar izaten zuten beharretan laguntzen. Orduko baserriko bizimoduaz hitz egin zigun Josek berarekin egon ginenean, auzokoen arteko harremanaz eta eguraldiaren iragarpenaz, besteak beste.

Dominga Kalzakorta Garagarza (1924)



Baltzolabekoa baserrikoa. Frontea ia etxeraino sartu zitzaion gerra garaian eta euren etxe inguruan eztanda egin zuen obus baten eraginez erredura larriak izan zituen bizkarrean. Gurasoek hala nola sendatu zizkioten zauriak eta denbora batera etxetik alde egin behar izan zuten. Elgoibarko Bertoso baserrira joan ziren hasieran, baina Dominga Borrajen baserrira bidali zuten gero izebarengana. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Txomin Kalzakorta Garagarza (1930)

Baltzolabekoa baserrikoa.

Julian Lejardi Kintana (1925)

Etxebarriko Bixkerrakoa.



Juan Loiola Zabala (1929-2013)

Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko muga inguruan dagoen Urkaregikurutze baserrikoa. Gerrako bizipenak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2010ean ([ikusi euren webgunean](#)).



Anastasi Malaxetxebarria Ibarzabal (1928)

1928an jaio zen Etxebarriko Antxi baserrian. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen oroimena taldekoek 2011n ([ikusi euren webgunean](#)).



Asensio Mandiola Baskaran (1922-2016)

1922an jaio zen Mandiolazarra baserrian. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2012an ([ikusi euren webgunean](#)).

Jesusa Mendiola Gerrenabarrena (1930)

Etxebarriko Urrusulokoa.

Josepa Frantziska Olano Zuazo (1926)

Etxebarriko Oluakoa.

Agustin Olasolo Mandiola (1930)

Etxebarriko Satzibarbeñe baserrikoa.

Luis Oñederra Irureta (1931-2017)

Etxebarriko Garronagusi baserrikoa.

Simon Salaberria Etxabe (1936)

Etxebarriko "Egixarre" baserrikoa. Bera izan zen inguruetan azken txondorra egin zuena. Txondorren gaineko azalpen zehatzak ematen ditu 1995. urtean Etxebarriko Alfabetatze Taldekoek egin zioten elkarriketan. Gerrako kontuak jasotzeko ere egin zitzaion elkarriketa 2015ean.



Agustina Solozabal Ibarluzea (1943)

Etxebarriko Aretxuloagaondo (Arexilondo) baserrian jaioa. Oizpe Guraso Elkarteko hasierako kideetako bat izan zen.

Pedro Solozabal Madariaga (1931)

Etxebarriko Beinkun baserrikoa.



Klaudio Totorikaguena Arroitauregi (1929-2014)

Etxebarriko Zuluetaigoiko baserrikoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarriketa, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Amets Txurruka Ansola (1982)



Amets Txurruka 1982an jaio zen Etxebarrian, nahiz eta bizitza Markina-Xemein eta Etxebarria artean egin duen. Aitari eta anaiari ikusita sartu zitzaion txirrindularitzarako afizioa, eta 8-9 urterekin Markinako taldean hasi zen. 2006. urtean txirrindulari profesional bezala debutatu zuen *Barloword* taldearekin. Gero, *Euskaltel-Euskadi* taldera pasa zen eta kirolari profesionaleko bizitza ia guztia eman du bertan. 2007ko Tourrean, txirrindularirik lehiakorrenaren saria eman zioten.

Bittori Txurruka Etxaniz (1928)

Etxebarriko Amillagaraigoikoa baserrikoa.



Maria Txurruka Etxaniz (1926)

Etxebarriko Amillagaraigoikoa baserrikoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Dominga Paula Txurruka Muniozguren (1928)

Juli Txurruka Muniozguren (1930)

Agustin Unamunzaga Unamunzaga (1928)

Unamuntzaga baserrikoa.

Jesusa Urkidi Arejitabelaustegi (1935)



Etxebarrian jaio zen, Euzkitze baserrian. Aita baserrikoa bertakoa zuen eta ama Mendatakoa. Hala ere, ama umea zela etorri zen Etxebarrira neskame. Hiru neba-arrebatatik bigarrena da Jesusa. Gaztetan, eskola utzi eta gero, josten ikasten hasi zen eta ezkondu eta gero ere jarraitu zuen bere amaginarrebarekin. Baserriko kontuez, gerrakoez, herriaz eta gaztetako ibilerez hitz egin genuen berarekin egon ginenean, besteak beste. Elkarrizketa [Agustin Guenaga](#) gizonarekin eta [Maribel Guenaga](#) koinatarekin batera egin genion. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Pedro Urkidi Arejitabelaustegi (1933)



Etxebarrian jaio zen, Euzkitze baserrian, hiru neba-arrebako sendian. Aita baserrikoa bertakoa zuen eta ama Mendatakoa. Hala ere, ama umea zela etorri zen Etxebarrira neskame. Gerra etorri zenean, etxetik alde egin behar izan zuten, lehenengo Azalotzara, ondoren Gandixara eta handik, Kortazar kapitain faxistaren pase batekin, Elgoibarko Beraseta baserrira joatea lortu zuten, han babesa hartzeko. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2014an ([ikusi euren webgunean](#)).

Maria Zelaia Etxaniz (1925-2020)



Etxebarriko Aiste baserrikoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Antoni Zubizarreta Urriolabeitia (1925-2011)

Patrokuan jaio zen 1925ean. Zazpi neba arreba izan ziren, nahiz eta bat txikia zela hil zen. Sei urterekin (1931) hasi zen eskolan. Etxebarrian ibili zen 11 urte egin arte (1936), Doña Salvadora irakaslearekin. Gero, gaixotu egin zen giltzurrunetik eta sendatu zenerako 14 urte zituen. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Madalena egunean jaioa izan arren, Jesusa

- **Hizlaria(k)**: Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: EBA-004/002
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:01:40. **Bukatu**: 00:03:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Madalena egunean jaio zen, baina ez zioten Madalena ipini, orduan zatarra irizten zitzaiolako. Orain, berriz, modan dago. Ama Larruskaingoa, Egixaun baserrikoa eta aita Beidekoa. Zazpi neba-arrebatatik bigarrena da Jesusa. Neba gazteena geratu zen baserrian bizitzen.

Transkripzioa

- Ta noiz jaixo zinen? Noiz jaixo?
- Noiz jaixo nintzen? "Veinti dos de julio". Bueno, hori erderaz esan esan dotsut /esotzut/ baiña.
- Bai, "veinti dos de julio".
- Veinti cuatrun, veinti cuatrun.
- Veinti cuantrun Madalena egunien.
- Bai.
- Ba, Madalen izen bihar ziñien.
- Zatarraue zala pentsau eben, Maalen esaten jakon ordun; ta oin modan da, hain da modan oin!
- Oin bai, lehen ez?

- Malen ta Matxalen ta bueno zer ez. Ta nik, nire amai esaten notsen. Nire ama Paula zan, da esan eitten notsen, Susana jaixo bihar ebanien edo jaixoteko eunien edo ez dakit noz zan, Paula ipini bihar zenkixue / bizenkixue/ izena umiai. Ta berak esan eusten: “zeuk ez zeuntsen ba ipini”. Ez, neuk ez neutsen ipini ta oin Paula, hemen goixen bizi izen zan betenarixue, ta oin ha, hazitte eongo da, baiña Paula ipiñi otsen /ipintsen/ izena.

- Bai, da oin pillo bat daz.

- Bai, bai, bai.

- Iratin aizti be.

- Be bai, be bai.

- Ta nongoak euki zenduzan ama ta aitxe zuk? Ama ta aitxe nungoak euki zenduzen?

- Ama Larruskaingue.

- Baserrixe?

- Egixaun baserrikue. Egixaun. Oin hutsittutte egongo da ha!

- Ta aitxe?

- Aitxe, Beidekue.

- Ta zenbat neba-arreba izen ziñien, zuek ba?

- Zazpi.

- Ta zeu?

- Neuaz zazpi, bigarrena.

- Bueno, orduen, etxien agindutue tokeu jatzun edo zer?

- Ez. Ordun holan izaten zan. Mutille edo nagusixe edo holan, gatzen zanta.

- Ez zuenin; gaztena geratu zan baserrixen.

- Beno ba, gatu zan ba, hoixe, bestiek jun zien da ba haxe gatu zan. Ta hantxe da, baiñe harek nik baiño gitxia dakixe harek, gerratin, oiñ, hobeto hirurotega hamabost urte daukez. Ostontzin memorixe ona dauke harek, nik baiño hobie baiñe.

1.2. Aitak irakurtzen eta idazten ondo, amak batere ez

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** EBA-004/012
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:15:54. **Bukatu:** 00:17:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Mutilak eta neskak aparte eskolan. Etxebarriko eskola berria herriko alaba batek, Zubizarreta abizenekoak, emandako diruaz eginikoa da. Aitak bazekien irakurtzen eta idazten, amak ez. Aitak eta Ameriketara zuen anaiak euskaraz idazten zioten elkarri.

Transkripzioa

- Eta esan dozu, ze joaten ziñen neskak eta mutillek danak batera?

- Ez, mutillek bere eskolie ta neskak eurena. Ta maixuk be ez, diferentik. Eskola bi, maixu ta pentsaizu, nik oin ointsu oindiño konturatu naz, zeñiek

emondako diruaz eindekue zan ha eskolie. Bertako alaba bat, Zubizarreta ez dait zelakue, behintzet harexek. Guk hori ikusten gendun, baiña: Ta gure amak eta aittek-eta esaten eban ba nun izen zan lelen eskolie ta, gero abadi be laguntzen eutsiela /laguntzotsela/-ta. Ta harek aittek, amak ez ekixen, baiña aittek bai ekixen /bekixen/, irakurten be bai te idazten be bai. Ez, baiña anaiek eukezan Ameriketara ta euskeraz eitten otsen /eittotsen/ harek, ta eurek berai be bai, kartak. Ta amak ez eban ikasi. Amak esaten eban, berak -katona esaten jakon leleengoko letrei-, ta katona ikesteko etorri zala Etxebarrire. Etorri ez, ekarri ein eban /eiben/, soltera nausixek-edo ziela. Guk geuk, ezautu gendun abadetxie ta ointxe be abadetxie da han. Baiña, hantxe bizi ziela soltera bi eta haraxe etorri zala bera, katonoi ikesteko. Gero, primera-komuniñoie be ein beharko eban, ta holan.

1.3. Amamari ogi mamina haginik ez zuelako

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** EBA-004/014
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:18:32. **Bukatu:** 00:19:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
- **Laburpena:** Amari baino askoz ere sasoi hobe tokatu zaio berari. Ez du sekula goserik pasatu. Amamari ogi-mamina ematen zioten haginik ez zuelako. Orain umeei zelako txokolatea erosi ere ez da jakiten.

Transkripzioa

- Ta nik hori zelan, gurie kontauko notsen amai, gu, haren aldin ondo geuzan da? Ondo, ondo, ondo. Guk ez gendun horren bestekoik pasau, ez gendun pasau! Goserik be ez gendun pasau. Artue te esnie ta ogixe ta esnie be naturala-ta. Oin daz atzera jotzen naturalera, oin. Baiña lehen hori zeozegaittik daukau guk daukaun osasune be! Gula barik, gurin, ogi bigune gure etxien, ba pentsaizu hamar lagun gengoan: zazpi neba-arreba ta aitte ta ama ta amama. Ta amamak ez ueken zerik, hagiñik eta ordun zer eitten eban? Amamantzako ogi bigune. Amamantzako, bestientzako ez euen. Oin zelako txokolatea erosi be ez dakizu umiei.

1.4. Ume sasoi jolasak

- **Hizlaria(k):** Gerrikabeitia Garramiola, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** EBA-006/036
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:39:35. **Bukatu:** 00:40:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Ume sasoi jolasak: txioka, karaba, tabatan, sokasaltoan...

Transkripzioa

- Eta zu eskolan ibili ziñenien eta holan ibiliko ziñen ba umeak jolasten eta?
- Bueno... hoixe.
- Hori bai.
- Hori bai.
- Da zelangoak ziren orduko olgetak eta?
- Baa...
- Oingo moduen, oingo modokoek ez dire izengo...?
- Keba.
- Aleztatxiokan, eztakitx zelakue eta bestie...
- Zelan zan hori?
- Ba txioka "bat, bi, hiru, lau te bat" eta buelta ta bestie, ta hori.
- Karabao.
- Al karabao bai.
- Zelan da hori?
- Ba hormien kontra egoten zien eta zuk esaten dozu: "bat, bi, hiru, lau karabao!", ez?
- Bai bai.
- Bai bai eta mobitzen bazan baten bat, ikusten bazendun mobitzen atzera.
- Atzera.
- Atzera bieltzen zendun.
- Horrek gauzak.
- Eta gero atzenin ia zenbat metro pareta zien eta ¡tza! zuri ikutu eta ikutzen zuna arrapatzen bazun berak pagau biher gañera.
- Ha parau bizen.
- Da horrek holakotxiek.
- Horrek jokuek...
- Eta tabetan eta?
- Bai, bai tabak be bai. Oin ez da usetan tabaik ezta?
- Ez dot pentsetan, ez.
- Txirikillak bai be gero.
- Zelan da hori ba?
- Soka saltuen.
- Soka saltuen.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Maistrak gogor eskolan, erdara sartu nahirik

- **Hizlaria(k)**: Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: EBA-004/003
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:03:43. **Bukatu**: 00:04:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Maistrak ez zekien euskaraz eta umeek ez zekiten erdaraz. Jesusari oso gogorra begitantzen zitzaion maistra, baina orain konturatzen da ez zuela langintza erraza eta zerbait egin behar zuela ulertu eragiteko.

Transkripzioa

- Ta zuk umetako kontuetan-edo, ze akordu daukezu, han Etxebarriko kontuk umetakoak-edo?

- Eskolakuk-eta? Ba guk ez genkixela erderaik, ta maistrik ez ekixen euskeraik, ta niri beittentzen jaten maistrie gogorra zala, beittantzen jaten neuri. Ta oin konturetzen naz, zozer ein biharko /biko/ bala guri entendidu eraitteko ezer. Berak ez eban ezebe entenditzen, guk ez gendun euskeraik o erderaik jakitten, ordun ba ez doskun inporta, erakutsi maistriai zeozer eitten genduen ta, amorratu eitten eban ta blisti-blasti be ataraten eban, baiña normala zan hori be. Ta gaiñera euskera, hak nahi eban erdera ikasi daigun; berak be hobeto, erretzaue egingo eingo eban-ta, erakutsiko oskun-ta. Baiña guk ez genkixenez, ezin geinkixen ein.

2.2. Belarrondokoa erdaraz gaizki egiteagatik

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** EBA-004/004
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:04:33. **Bukatu:** 00:07:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Felisa esnearekin joaten zen Etxebarritik Markinara egunean bi aldiz. Maistrarekin batera joan ohi zen sarri, hura erosketak egitera joaten baitzen, gauzak txakur txiki bat merkeago lortzearren. Gogoan du behin nola bidali zuen Pilareko Ama Birjinaren koadroarentzat zinta hori-gorria eroatera, eta bueltan nolako belarrondokoa eman zion erdaraz gaizki egiteagatik. Erdaraz dago azkenengo zatia.

Transkripzioa

- Beti gogoratzen naz, berak egun baten holan, guk esni ekartzen gendun Markiña, baserritik. Ta ordun ez euen tratorik, ta eskun hartu kantiñek ta goxin ta illuntzien. Ta maistrie, harek maistriek, Etxebarrin bizi zan eskoletxien, baiña txakur haundi bat merkia beuen piper potue Markiñen - Etxebarrin be dendi beuen- ba Markiña etorten zan. Ta ordun, ba nahi izeten eban lagune eruteko harutzien, ta beti plantete giñen; osea, harutz juteko nahi honutz etorteko be bai, ezta? Baiña maistriaz jun ta etorri. Ta zemat bider akordetan jaten hori! Egun baten esan eusten /eseusten/ kordoie ia ekarriko neutsen, horixe ta gorrixek; ze, Ama Birjiñe Pilarrekue euen eskolan ta haretxi ipintteko zinttie, esegitteko kuadrue. Ta berak esan eusten /esausten/ ba ze, erdera eitten eban ta, esan eusten /esosten/ ba ze: "Pues dónde podía tener aquello", "En la mercería, en alguna mercería ¿no?". "Pues, puede haber donde Clementina". "Clementina era una tienda". "También puede haber donde Orbea, que era una tienda que, parece que era, como requisaron o así aquello porque en tiempo de la guerra pasaron cosas feas ¿no?. Y luego, el otro era, eran tres sitios". Zuk bakixu hori. Ta jun nitzenin eskola beratzi t´erdixetan esni ekarritte gero, ba harek beti ondo, berandua jun arren be, bakixen-ze nun izeten nintzen-

ta. “¿Ya me has traído guapita?”, “Sí señora”. “Había que decirle “sí señora” o “no señora” y todo eso”. Bueno “y ¿de dónde has traído?”, “Y, donde Clementina no ha estao”. “No tienes que decir así, tienes que decir: donde Clementina no había”. “Donde Feliciano tampoco no ha estao” nik. “Tampoco”, “¿No te digo que no tienes que decir así? Tienes que decir: Donde Clementina no había y donde Feliciano tampoco había”. “Que me quería enseñar y en la tercera le dije: “donde Orbea ha estao”. “Me da un sopapón que posterior he pensao, que ahora no hay sopapos. Todo lo contrario, si te dan, no pegar como entonces pero si te dan pues, enseguida te van a la maestra o al maestro porque las amenazao a tu hija o a tu hijo pero entonces no había eso. Pero ya me entró el verbo entrar.”

2.3. Maistra zakar batzuekin, goxo beste batzuekin

- **Hizlaria(k)**: Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: EBA-004/006
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:07:54. **Bukatu**: 00:10:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Ogi-mamia erabiltzen zuten koadernoan gaizki eginak borratzeko. Behin neskatala bat joan zitzaion maistrari koaderno zikin-zikin eginda borratzerakoan eta zaplaztekoa eman zion; handik laster Beronika izenekoa hurbildu zitzaion egoera berdinean eta goxo-goxo hartu zuen. Oso begiko zuen maistrak Beronikaren familia. Nahiz eta urruneko baserri batekoak izan, oso familia adeitsua argia ei zen.

Transkripzioa

- Bai horregaittik.

- Hori Veronica zan, inor izen leikenik onena. On-ona, moduskuk zien izen be. Eurek, espabilauek ta majuk danak! Baiña, Veronica edozergaitxik gorritzen zana zan. Ta, egun baten diktaue agindu euskun maistrik eitteko ta ein dogu ta gero harek, diktauek ipintten eban erara, bueno harek esan nahi bana, dibuju ein azpiko partin. Borragomaik ez euen. Ta zeaz? Ogi mamiñaz borraten gendun. Pentsa zelako zikinkerixe! Ta han gure auzoko bat, Atotekue; honen Mertxe zeran ta amama, beti ibiltten zan guapatxue zan bera baina, rubixa-rubixi guapi zan. Baiña beti beti ahue erreta eukitten eban mokukin. Jun zan maistrana erakustera: “blis-blas-blis-blas, sucia”. “¿Qué iba ser otra cosa porque quería borrar aquello que había hecho, cómo estaría?”. “Va Veronica, y ha roto el papel roto tenía aquella de tanto borrar, querer borrar”. “Pero por dios Veronica, ¿cómo has hecho ésto?”, “con una humildad, pero le da aquella. Y su padre le hubiera dicho: no vas más a la escuela. Venían de Retolaza, pues está, el último de caserío de Etxebarria”.

- San Migeleruntz?

- Besteruntz, Larruskaiñeruntz. Ba harek etorten zin goxien, ta illuntzera arte ez zien juten. Ta egun baten esan notsen beran aiztai, Veronican aiztai, Maiztegin amai, esan notsen: “nik ez dakit zegaittik, Txomiñenin bazkaltzen zenduelako zuek, ta maixu-maistrak be hantxe euezan apopillo ta hoixegaittik-edo, zuentzako aparteko hori eukitzen eban maistrie”.

Oseake ezebez, esan otsen harek Teresak, Maiztegin amak. Ha ni baiño zatixe zaharrau zan, baiña neuk be ikusi eitten neban, haretxen modun. Ta, badakizu zegaittik? Eske gure aitte bakizu zelako kaballerue izen zan ta zan! Han mendixen bizi izeteko! Ta hak mezi entzutera-edo Markiña o Etxebarrire bajeta zinien, ba beti eukitten eban atenziñue maixuaz ta maistriaz. Ta hoixegaittik-edo izengo zan igul, esan dosten /esosten/ berak. Eta izen leixen baiña sekulo ez eban premiñaik, Veronicak ez. Teresak ez dakit baina Veronicak ez euken premiñaik horretako ze ...

- Izenak behintzet elegantik eukezan horrek, ezta, baserrikuk, Veronica-ta?

- Bai, ta Maria Luisa ta Teresa. Ta gero beste bat hil ein jakuen, ha gaztetxuaue zan. Mutillek be majo-majuk zien, bat pelotarixe. Bueno lobie harena, baiña ez dait ez dan gatu baiña zesta-puntan nausi! Bai, oin bi urte edo hiru.

2.4. Aguraingoa zen maistrak euskara ikasi ez, Leongoak ikasi

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** EBA-004/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:10:59. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Maistra hori Salvatierrakoa (Aguraingoa) zen, baina ez zuen euskararik ikasi; maisuak, oster, Leongoa izan arren, ikasi zuen interesa jarri zuelako. Ez zuten gauza handirik ikasi eskolan. Gainera, uda batez gerra etorri zen eta ikasturte osoa galdu zuten.

Transkripzioa

- Eta, hori maistri hori nongoa zan ba?

- Hori, joten, niri esan ostena edo hori? Salvatierrakue. Ta harek, ez eban ikasi euskeraik. Ta oster, maixue Leongue zan ta ikesi eiban.

- Ta zelan ba hori?

- Ba interes gehixa ipiñi-edo eingo eban; ze maistrik ba, beste egun baten be bagoiezan etxa Markiñetik, ni neure etxera, baiña ha berana, Etxebarrin bizi zan ha, ta ni bide erdixen. Ta bagioiezan, ta goxin esplikau euskun, “no sé qué polar”.

- Aurora polar.

- “Firmamento; no sé qué era pero eso es. Fíjate lo que habría entendido yo”, harek esan eustenetik. Bagoiezan han Basaibarko errebueltan ziherdik, “estaba estrellao”, bueno argi-argi euen izerra ta gau edarra. “No sabes cómo te-os estao contando, y pues eso, le digo. Digo yo entre mí: si supieras lo que he entendido yo de allí, nada de nada. Bastante hicimos lo que hicimos; leer-escribir, mal o bien aprendimos pero dividir bien no. Así que, tú díme lo que podré saber yo”. Pero halakotxe epoki suertau be ein zan, maixu-maistrak ba bakaziñuk emon zittuen juliuen, ta harek jun zien euren etxita. Bixen bittartien sartu zan gerrie ta gure bakaziñoiek, gerratin izan zin; oseake, ze ikesi ta ze eingo gendun?

2.5. Frankistek hartutako hiriak mapan seinalatzen

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** EBA-004/008
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:12:36. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra denboran, eibartar batzuek eskola erakutsi zieten baserri bateko umeei; gerora, eskolara itzuli zirenean, asko igartzen zitzairen. Gerra Etxebarritik pasatu berritan, maistrak mapara irten eta "Nazionalek" hartutako hiriak seinalatzen zizkien.

Transkripzioa

- Baiña bai igerten jakuen, eibartar batzuk egon ziren Basaben, hor Arratenta etxin. Ta harek klaro, han inguruko umiei-ta, baton batek behintzet emon egiten otsien /eittotsen/ eskolie. Zuk bakizu zelan igerten jakuen harei, atzera eskola etorri zienien? Bueno, maistrak einde!

- Ta zenbat denpora eon zinien eskola barik zuek? Gerra sasoiaren zenbat denpora eskola jun barik?

- Ba zenbat denpora esango dotsut? Zazpi bat hillabete, bueno, kurso bat eta gehixa. Gero, hemendik gerrie pasau zanin, etorri zan maistrerie ta maixu be bai, hau librau zanien. Baiña gerri beuen hor kanpun eta zelan esaten eban maistrerie? "La toma de no sé qué, como ahora estamos huyendo que", gaur goxien esan daben modun, Frantzian be egon dala atentaue ta bai hil dabela-ta. Ba orduen, egoten zan periodikue hartzen eban maistrerie, karteruk ekarten eutsen-ta, irakurte banin "derrepente al mapa, ¿en qué sitio habían cogido los nacionales que les llamaban a los requetés? Los otros iban cada vez más abajo".

- Ta holan ikesten zenduen?

- Ba ze ikesi bihar gendun /bigendun/ guk? Almeria ta. "Almería no, todo lo demás".

2.6. Maisu-maistrak elkarrekin ezkondu

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** EBA-004/015
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:19:24. **Bukatu:** 00:20:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Maisu-maistrak herriko taberna batean zeuden apopilo. Udaldi batean ezkondu egin ziren. Salva Madinabeitia eta Máximo Martínez, izenak. Maisuak euskaraz ikasi zuen. Maisu ona izan ei zen. Maistra orduan txartzat zeukan, baina orain iritziz aldatu da.

Transkripzioa

- Eta horrek, maixu-maistrak, zer bizi zin bertan Etxebarrin?
- Etxebarrin bizi zin. Gero eurek alkarraz bizi, ezkondu ein zin. Apopillo be, leku baten eon zin taberna baten ta gero, udaldi baten ezkondu zin: Don Máximo eta doña Salva. Doña Salva Medinabeitia y Don...Oi amaa! Máximo Martínez.
- Ta horrek Máximok, zelan ba ikasi eban ba euskeraz, herrixen integrata egon zan-eta?
- Klaro! Eta hari interesau eitten jakon ikestie. Mutikuk oindiño neskak baiño gitxia jakingo eben; berak eukezan mutillek. Baiña maixu ona izen zan! Bueno, gugez ez eban euki hainbeste zer, baiña. Neuk be maistrie, ordun txartzat neuken baiña gaur, oindiño aintxiñe ez dala hilde, baiña Markiñen bertan hil zan; ze, alabie ezkondu jakon Markiñeko mutil bataz-ta, hamentxe hil be ein zan. Baiña sinpatikie eta maestra zera zan.

2.7. Familia aberats batek emandako altzariak eskolan

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** EBA-004/016
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:20:28. **Bukatu:** 00:23:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Liburuak eskolan egoten ziren eta ikasle batetik bestera pasatzen ziren. Kubara joan ziren etxebarritar batzuk aberastu egin ziren eta hainbat altzari eman zuten eskolarako. Beren izena jarrita zeukaten, "Señores de Laka". Orduan ere denetik zegoen ikasleen artean, azkarragoak eta tontoagoak.

Transkripzioa

- Ta libururik edo euki zenduen zuek?
- Bai. Liburuek primerun pasau eban, bueno lenengokue, bigarrena eta hirugarrena edo bosgarrena bazan be ez dakit nik, hantxe egote zien bestiantzako bestiantzako, bestiantzako ta bestiantzako. Ta beste gauze bat euen, ta ez dot pentsetan maistriai ondo beittentzen jakonik hori. Herrixen euzan, ta bueno hil zien denak eurek, baiña Kubatik edo han Bariñakue, Bariña eukiko dozu iguel zerin, Barinaga. Hango mutil bat, anai bi edo hiru edo jun zin Kubara, gu ta baiño aurretik! Hil be antxiñe ein zin-ta. Ta, aberastu ein zin. Han Kuban gaurko modukoik ez euen. Ta ha bat, Etxebarrire ezkondu zan. Ta eiban etxe eder bat. Egonda zaz Etxebarrin? Ba, oin eurek ez di bizi inor han, baiña dauke han, ba eurek zaintzen eon zan bat, dago han, bizi izeten. Gaiña, bera bizi den arte, andrie bizi den arte pentseten dot, eurei itxite daukela. Bueno ba, han euezan aberatsak ta harek zien ba, Señores de Laka. Ta euken kuadro bat, haretxen kuadrue zan: seme bat eta alabie eukezan. Alabie hil zan ta eurek andra-gizonak eta kuadrin. Gero euen, beste danak mahaixek ba, asko usautekuk zin, baiña Señores de Laka: bi aurrin, haundi zamarrak zien ta barrixauek harek, ta harek ipintten eben, Señores de Laka. Eta beste aremaixo bat, zerak liburuk eta eukitekue be, Señores de Laka. Ta gaur hori ez eutsen ametidu be eingo, baiña ordun bai. Ordun holantxeik zan ta hoixegaittik

diñotsut ba, ordun be ume berez argixek zienak, han igerriko otsen zein zan aurrerakue ta zein zan gatzekue. Ba bauezan haxe Bitorianeko Maritxu, ni te baiño zaharraue da hori, baiña dibujetan ta euken arte bat harek! Ta ostontzin be bai, baiñe guk pentsetan gendun ba, mutillek eukezan harek nebak, ta ba haretzek lagunduko eutsela igul deberrak eitxen-edo. Baiña maistriek ez harek guk baiño gehixa, horrek hori zan lekukuek, baiña beuezan baserri haundixekuek be etorten zienak, modue eukenak pagetako be majisterixue ta handik aurrakue. Baiña ez ittuen akonsejau be ein, ze harek be gatu zin geure modun: hamalau urteaz urten eskolatik eta argixek zienak ba, argitxua; ta totuk zienak, toto beti. Ba hoixe.

2.8. Oso azkarrak ziren neba-arrebak

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** EBA-004/023
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:32:59. **Bukatu:** 00:34:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Maritxu Errotaberrikoa oso azkarra ei zen. Baina Jesusak adierazten du ez zuela ikasketak egiteko aukerarik izan. Haren bi anaiak ere oso argiak ziren. Eskolako planoak maisuaren eta bi mutil horien artean egin ei zituzten. Taldeko argazki bat erakusten du.

Transkripzioa

- Beste batzuk, lehen be esan dot: Maritxu hori Errota Barriku-ta, Bitorianekue? Hori, listisimi zan, bai oin matematikak esaten jakue -ordun beste modu bata esaten zan- baiña dibujetan-ta? Artistie! Baiña nebak eukezan horrek; honen Arteagan-ta, hau maixuau barik, beste bat aurretik eon zan. Ekarrizu hoixe erretratuoi hona! Ia, hemen dauen ha. Ba, ze esatera noien ni ointxe?, ahaztu jata.

- Arteagan ez dakit zer.

- Anaixak.

- Arteagan aitte zan, gero derrame zerebralaz golpera hil zan.

- Hori zan don Felipe? Don Felipe hau zan?

- Don Felipe zan hori.

- Don Felipe eta besti zelan zan maistri, doña?

- Julia, doña Julia. Ta hori ...

- Hau zan republikanie?

- Republikanie, eta abadiak ez ei eban zertzen. Baiña pentse eizu, hemen dauezanak gehixenak hilde daz. Gehixenak! Bai. Ta, honetxek zin haren nebak; haxe, Joxe ta Luis. Luis, hau. Ta horrek, don Felipegaz ibilli zin eskolan. Ta Antxiko etxie ein zanien, etxe barrixe ein zanien, planuek don Felipek eta semiek eiñ ei zittuen edo eskolakuek ei zittuen.

2.9. Etxebarriko eskola eta maistra

- **Hizlaria(k):** Gerrikabeitia Garramiola, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** EBA-006/007
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:06:12. **Bukatu:** 00:07:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Gerra etorri zenean, Mari Karmen eskolara hastekoa zen, baina gerra denboran eskolak etenda egon ziren. Bederatzi urterekin hasi zen Etxebarriko eskolan. Maistra nor zen aipatzen du. Maistra ona zen: euskara ikasteko gogoia zuen, eta ikasleek gaztelania ikastekoa.

Transkripzioa

- Orduen eskolara hasite ya ala? Edo hasi barik?
- Ez, ez hasi barik ondiñoik bai; bueno hasteko nintzen bai baiña, ez gerriaz ez gero beratzi urteaz eskola.
- Berandu ezta?
- Bai, beratzi urteaz hasi zan ostabe eskolie. Ez zauen aurretik han eskolaik hemen be ta ez, jun giñen gero etxea ta handik ba Etxebarrire ostabe...
- Eta eskolia non euan?
- Etxebarrin.
- Etxebarrin.
- Eta zelan akordaten zera eskolara...
- Bueno, bai.
- Zelan hasi ziñen edo?
- Bai auzoko neskik eruen nindun lehenengotan; amak esan maestriai eta maestrie kanpotarra zan maestrie, hoixe Legarreneko, Legarran...zelan da? Mari Carmenen ama zan gure maestrie. Gero hamentxe Markiñen bizi zin, bai
- Ah Mari Carmen hasi zen...
- Bai, hasi zen andrian ama.
- Ama bai.
- Hori da.
- Eta zelan maestra ona?
- Bai.
- Edo gogorra?
- Ez ez, hak ezekixen euskeraik eta guk ez gekixen erderai ta ba hortxe... baiña berak be esate eban: "Quiero aprender".
- Guk "más".
- Klaro.
- Bai ba, bueno ba guk ikasi genduen. Erakutsizkigun harek be erderie ta aurea... eta eskerrak erakutzizkigun aper bat, bestela ez genduan jakingo bape be.
- Klaro, osea que ez zan izen maistra gogorra?
- Ez ona; ez, maistra ona zan.
- Holan kastiguen eta ez ezta?
- Ez keba keba... ez maestra ona zanbai.
- Joe, suerte ezta ze batzuk auki dabie maistra gogorrak.
- Bueno baiña bai.
- Ez maistra ona ta ondo erakuste eban da ba bai da gero...
- Eta zelaik be, bai esan.

2.10. Eskola gerraostean

- **Hizlaria(k):** Gerrikabeitia Garramiola, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** EBA-006/031
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:32:17. **Bukatu:** 00:33:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Eskolan "¡Viva España!" esan behar izaten zuten eskuneko besoa altxatuta. 'Cara al Sol' abesten zuten. Errezoak. Liburu bakarra gelako ume guztientzat. Neskak eta mutilak aparte ikasten zuten. Nagusienek txikiagoei irakasten zizkien batuketak egiten.

Transkripzioa

- Ta eskolan eta ez zendoezan holan eh ikasten gauza asko Espainiakoak eta?
- " ¡Viva Franco!"
- Bai ezta?
- Ala aurrera.
- Ta kantau Cara al Sol?
- Kantau Cara al Sol ta horrek, ta ixildu barik ta errezau ta kantau ta ale... "bachiller nada".
- Ta geografía Espainia ta?
- Bai, maistria egon zan ta maistriak erakuste ozkun pixket.
- Teoriak eta holangoak?
- Horrek bebai, bai bai, liburu bat az e!
- Bakarra?
- Bat danok, txandan txandan; liburu bat ala.
- Bat danontzat?
- Ez zeon gehixa ta, bat.
- Ta egoten ziñen neska eta mutil batera?
- Bueno, maixua euan ta maixuek sartze zin ta maixuek gaixoko egunin danik batera be iguel, baiña bestelan bi ezan, bi euzan.
- Aparte?
- Neskak eta mutillak, eskola bi.
- Eta neska guztiek batera, edade diferentekoak?
- Danak diferentek.
- Danak batera.
- Txiki ta haundi, bai bai bai...
- Ta hori zelan izen al lei ba?
- Edarto.
- Nausixek txikixai erakutsi itte zoutzien, irakurten ta erakutsi itte outzien.
- " Ponte al lau de aquella".
- Batuketak eta...batuketak eta nausixek txikixei erakutsi ta...
- Bai txikixei erakutsi ta, bai bai... bueno.

2.11. Erregeetako opariak

- **Hizlaria(k):** Gerrikabeitia Garramiola, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa

- **Erref:** EBA-006/039
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:43:33. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena:** Erregeetan jasotako opariak: pandero bat, piku- edo okaran-pasak... Ostantzean, behar zenean soinekoren bat ekarritzen zioten.

Transkripzioa

- Eta egote zien erregaluek igual urtegunetan edo?
- Pandero bat itte badaben, asko! Holako panderotxu edo erregeetan edo...
- Erregeetan?
- Bai, zozer
- Panderotsue ba
- Ta orduen be ba piko pasak edo okan pasak edo holakotxik; zapatan be ta pfff... ostantzien, erregaluek eh eztait ba bai, soiñekue ekarri biharrien ekarriko ouzkuen baiña.
- Gitxi
- Ez zauen.

3. Iritziak

3.1. Mila aldiz hobeto bizi dira oraingo maisu-maistrak

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** EBA-004/011
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Hotz egiten zuen eskolan. Berogailua bazuten, baina ke handia botatzen zuen eta begiak erreta amaitzen zuten. Maisu-maistrak ere estu bizi ziren. Horrela ziren orduan gauzak. Orain, berriz, soldata eta opor onak ei dituzte, baina hala ere beti kexaka.

Transkripzioa

- Ta eskolan, ze esan dozu, bertan Etxebarrin euela eskolie?
- Bertan euen, ta estufie geunken hor egurre sartute eukitte zan zera. Eta han eoten zan ha, perrerie-edo esaten eutzen /esatotsen/ lekun-da. Gero hotzak, eta umik be bai eta maistrik berak be eukiko eban hotz. Ta hasten zan keie, keie, keie, keie ta keiaz begixek be erreta ume danak, amatau arte. Klase horretakoxe eskoli zan da. Ez pentsau, esan nahi dot, eurok maixu-maistrok be goixen bizi zien. Ta ez zan aintxiñekue be ha eskolie baiña ez euen, ez euen. Ta eurek maixu-maistrak be, ze irebaziko ete eben, ba? Ha maistriek zozegaittik etorten zan Markiña kargaute jutera atzera. Ba txakur haundi bat edo txakur haundi bi edo piper potue edo, horretxek eukitten eben pixue. Holaintxeik zan, ta, oin maixu-maistrak be, urteik

erdixe jai. Ba bai, holaintxeik da hori;;ta gero bardin irabazi. Ta zelako irabazixek! Ta, oin be kejau jentie, kejau-edo “hay que aguantar. Aguantar, era aquella maestra que, teníamos nosotros y no entendía; ni nosotros a ella, ni ella a nosotros tampoco”.

3.2. Baserriko seme-alaba argiak ikasketetara bideratzen ez

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** EBA-004/021
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:30:51. **Bukatu:** 00:32:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- **Laburpena:** Bilbon Elkanon egon zen kortea ikasten. Lana egin ere bai, igandetan eta. Sasoi hartan ez zegoen orduko hainbeste diru eta horrelakorik. Nolanahi ere, ez du damurik gazte-denbora horrela pasatu izanaz. Bakoitzak ba ei zekien zein zen bere lekua munduan. Baina kritikatzan du maisuen eta apaizen jarrera: baziren baserriko seme-alaben artean ikasle onak eta argiak, eta gainera etxean diru faltarik ez zutenak. Zergatik ez zituzten ikasketetara bideratzen?

Transkripzioa

- Alaba: Ta zuk josten non ikesi zendun ama, josten Bilbon ala Etxebarrin be.

- Etxebarrin ta gero korti ikesten Bilbon.

- Alaba: Ta Etxebarrin nogaz?

- Katalinaz.

- Alaba: Katalinaz, Tomasenukuaz.

- Palomon-ta amaz.

- Ta hori, debaldekue izen zan ala hori, josten ikestie?

- Izengo ez zan ba debaldekue! Behin...

- Bilbokue be bai?

- Ordun ez euen... Bilbokue ez, ez, ez; ez zan Bilbokue ez. Hango rekuerdutan, Elkanon egon nintzen.

- Alaba: bihera be ez zendun eitten zuk hor Tomasenin, zerbitzen-ta, ez?

- A bueno, domeketan-ta holan bai. Hombre, dana gauza bat. Ordun ez euen, zerik oingo modun, orduko-ta. Harek jun zin. Nik oin esaten dot / esatot/, ez dauketela bape-bape penaik neure gazte denporie holan pasae. Ez dauket, ze ez giñoiezan inoi esatera, zelan izan biher eban / biban/. Danak genkixen gutxi gorabehera, baiña lehen be esan dot: ordun beuezan baserrixek ondo euen jentie baserrixen, edo piñuegaittik edo eurek fiñek zozegaittik; biher gehixa einde ez, gure aitxek eta amak eta baiño. Ezpabe ze, etorri jakuelako baserrittik edo dana dalako lekutik. Baiña, ezin ba eongo, maixu-maistrak edo abadik edo baten batek, honek merezi dau gero ikestie, igerte jakue, umiei, gehixenin.

4. Lanbideak

4.1. Amari antoisinkada ura kokotetik behera lokartzeagatik

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** EBA-004/013
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:17:18. **Bukatu:** 00:18:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Ama zazpi urterekin neskame, umezain egon zen baserri baten. Behin sehaskari eragiten ziharduela lo hartu zuen. Ama etorri eta horrela ikusita antoisinkada ur hotz bota zion kokotean behera. Han irabazitako diru apurrekin pozik itzuli zen etxera.

Transkripzioa

- Ta hor egonda gero izengo zan, han auzoren baten behintzet-ta ha mendixe ta dana, orain tapaute da piñuaz ezta, baiña zera, zelan da hori? krixeda euen lekuen, ume zaiña junde euen lekuen, neska soltera bat-edo bizi zala behintzet-edo. Harek haxe euen txartzat berak, ze umiai kumiai eraitten euela, bera lukartu, ama. Baiña pentsaizu, zazpi urteko umie ez zan ba lukartuko, logurie beuken? Ta etorri zanin hori hango neskioi edo ama andrioi edo dana dalakuoi etorri zanien, ta han lo topau banien, antosiñe esaten eban berak zerai-, antozinko antozinka ur hotza bota eutsela kokotin behera. Pentseizu zuk maixu-maistrak jo eingo eben baiña holakoik ez eben eingo. Baiña berak ekarri eban poza esaten eban, irabazi eban ez dait zenbat txakur haundi izengo zien edo txakur txiki edo errielak, holantxeik hartu zerien, ta amana etxa. Ha zala poza, ez gaurkuek!

4.2. Josten ikasten Etxebarrin eta Bilbon

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** EBA-004/019
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:29:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Ikatzaz markatu eta etxean ebakita ekartzen zuten bi ahizpa baserritarrek josteko ehuna. Etxebarriko jostundegian ikasi zuen josten lehendabizi, eta gero Bilbon jantzigintza (korteak).

Transkripzioa

- Oiñ ez da gatxa arropie eitten. Ez da gatxa, zi-zaust-zautz eitten dabe ta, zatartuen dauena edo zerena, haxe izeten da politxena iguel. Ta harek maistriek, esaten otsen /esatotsen/, berak esango eutsela, berak ebaiko eutsela harek kamixak baiña amamak ebaten otsezan etxien. Ta ordun iketzaz egoten zan. Iketza egote zan ezta, baserrixetan. Ta iketzaz, zizie

barik, iketzaz markau ta hantxe, beran markakin etorten zan, baiña ebaitte ekarte zittuen etxa, ta han josi. Ta punto de kruze, -ointxe be Beiden han eongo da- neuk be aramaixuan gaiñeko, komadian gaiñako punto-kruze, baiña bueno politxe behintzet. Ta holan besteko, harek erakusten eban horretan. Puntuik-eta ez, baiña punto kruze ta bai. Ostontzin, zera ez. Ta josten ba hoixe, eskutan ein biher izeten zan dana. Ta harek, zelan ekarten zittuen, harek neskak -bata gaztiau zan bestie neure edade ingurukue- ta etxin ebaitte! Ta gaur baiño gehixa, oiñ Teren ta denporan be, kolejixun be erakutsi eitten eban. Ta horrek be, oin ez dait hemen eukiko daben edo San Martiñen eukiko daben, baiña trapue, honakoxe trapue einde euker zerakin, ein bihar zin /bizin/ diferentikin: puntu kruze ta bainikie ta bainika doblie ta ez dakit zelakue ta danak eukezan einde,

- Ta zuei zeñek erakusten eutzuen josten, horrek maistriek berak?
- Ez, maistrik ez. Gero, jostundeire jun ta hantxe.
- Han bertan Etxebarrin be bauen?
- Bai, Palomon ta ama. Arteagas, horren hori, Javierren, Javier ez. Zein da ba? Aitorren andrian amama zan. Modista ona zan e, bai. Etxebarrin eitxen eban.
- Baiña zuk gero, gero Bilbon be ikesi zendun edo?
- A bueno bai, Bilbon bai, kortie ikesten eon nintzen.
- Bilbon?
- Bilbon, bai.

4.3. Bilbon neskame 15 urterekin

- **Hizlaria(k):** Espilla Sololuze, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** EBA-004/020
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:29:11. **Bukatu:** 00:30:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** 15 urterekin joan zen Bilbora neskame, Erzilla kalera, aberats etxe batera. Getxon ere bazuten txaleta. Orintsu hara joan zen Jesusa etxea ikuste aldera. Sasiak janda aurkitu zuen.

Transkripzioa

- Ta iñoz esan dot ba, krixeda be egon nintzen, hamabost urtez junde.
- Nun?
- Ba esango dotsut non: Erzilla “cuatro” zan, baiña nire uzaban uzaba zan, Hotel Carton ein ebanan /eibanan/ anaie. “Asi que, no era cualquiera”. “Sí”, ta euezan, amaik ez euker, hil ein jakuen ta. Baiña ni baiño aurretik han eueza, esaten osten niri, ba zelan izen zan. Udan gero etxie eurek ein eiben, etxie Getxon, hantxe, zelan esango dotsut ba nik?
- Neguri.
- “No”. Neguri ez zan ha. Ha zan Getxo, Santa Maria de Getxo. Ta nik, interesa neuker haxe ikusta juteko. Ta, egun baten jun gintzezan zerak, zelan da hori? Zein da hor? Niri entzuten? Ta jun nitzen ta sasi jantzitze euen ha, gure etxie sasixe dana euen. Ta euen telefonuko telefonikeko biribile lehengo lekun. Ostontzin be ta bai, estaziñoie, trenan estaziñoie Berangotik Getxora bittartekue ta horrek be, lehen lentxeik euezan, baiña.
- Ta zeñaz jun ziñen hara?

- Nora?
- Hoixe ikusta barriro.
- Beste barik, bai, bai. Bueno, ez zan jun Idoia edo ez dait zer?
- Oporretan bueltatxo bat emota-ta, ikusta harek inguruk.

5. Herria, azpiegitura

5.1. Etxebarria nola aldatu den

- **Hizlaria(k)**: Juaristi Zubizarreta, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: EBA-007/009
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:15:05. **Bukatu**: 00:17:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Etxebarria zenbat aldatu den. Lehen baserri-giro handiagoa zegoen. Hiru-lau etxe eta eliza besterik ez zeuden. Udaletxea "Peñakua" baserria zen. Abadetxea. Inguruko baserriak. Baserri asko erorita edo utzita daude.

Transkripzioa

- Lehen herrin jende asko bizi zan ala?
- Oin baiño gehixa, bueno oin ez ez, ordun zan basarri giru gehixa, oin da herrixek kaletartu.
- Hori da, ta orduen kaletarrak egon zien Etxebarrin?
- Ez, lehen Etxebarri herri ttiki-ttiki, ezebe zan lau etxe zikin bakarrik zeuzien. Bakizu gaur zenbat etxe pillu dauen Etxebarrin? Ikusitte bakarrik esango zenduke, hau ciudadie lehendik hau ciudadio dok. Aurrekun ba, hiru lau etxe alkarren ondun elizie ta punto. Ha oin ayuntamientue dan lekun etxi basarri bat zan, basarrixe zan.
- Bai eh?
- Bai.
- Zelan eukon izena, baakizu?
- Bengañekue ta, ha atzeko etxe altue be abadetxie ta han be bizitxan egondakuek dao, eon zien.
- Abadeak?
- Ez.
- Jentea?
- Ostantzeko ostantzeko jentie, bai. Ta gero ipiñi eben abadintzako etxie ha.
- Hori beste baserri bat zan orduen?
- Bai ta han basarri asko, oin asko eskutau da.
- Bai eh?
- Honetxek piñu honek asko. Lehen hamendik beittute honek, hoi goiko gaiñaldi hoi dana basarrixe zan. Hamen illera hontan, hau da bat beste bat dau gorau ta, atzera dau beste gorau parin beste bat dau; hiru basarri ta horre bixok ya galdute dauz.
- Zelan eukien izena?
- Batak Goikune, Balsola goikue ta hau Balsola behekie ta, hurrengo baserrixe beheku da Agarraspikue, bai.
- Horrek die ingurukoak?
- Bai, bai, hamendik ikusten dire ta beste bat dao hamentxe etxe zahar bat

Agarra gaiñekue hori ya jausi da oin.

- Oseake lehen baserri gehau egoan?

- Eongo ez zan ba.

- Karo.

- Geur pasa kalin daun beste inguruko etxetan lehen baserrixek zien. Oin baserrixek danak abandonaute; batak jausitte beste batzuk'e... ahaztute.

6. Natura

6.1. Hegaztiak eta eguraldia

- **Hizlaria(k):** Juaristi Zubizarreta, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** EBA-008/010
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Natura » Meteorologia
 - Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena:** Lehen txantxangorri asko zegoen, orain galdu egin dela dio Josek. Antzara eta uso pasak. Hegaztiak irten diren lekuan denbora txarrak hastear direlako (negua hasiko delako) etortzen dira hona, udaberrira.

Transkripzioa

- Txorixek eh, oin txorixek hemen lehen txantxagorrixek asko zan ta oin galdu ein da. Antzarrak bai pasuen, oin be pasatzen die usu ta horrek pasatzen dau. Lehen hona etortzen zin lez, oin hemendik horra doiez.

- Horrek be denpora txarra dakarrela, ezta?

- Ez, horrek esan nahi dau denpora txarrak han ateatze ittule, han negue hasiko da ta horrek udaberrirantz datoz. Ez, hemen denpora txarra datorrenik hona ez; han.

- Eurek datozen lekutik.

- Eurek urten daben lekuen dauela txarra esan nahi dau harek; ez hemen. Eske hona datozenin (oso) urrin doiez ta harek harunz doiezela horrei ez jake gustatzen aurrien laiñoik ez deixela euki topeka. Ordun hasarratzen die, ta harek zarata haundixe daukenien esan nahi dau harek ointxe dator denporadie. Ez, hori ez dau hortaik. Aurrie garbi ikusi ez dabelako eitten dau harek protestie ta pen(sa)tzen dau eurixe, txarra negue edo zea kanbixue datorrela eztau horretaik, nik hala uste nauen behitzet.

- Ba bai.

- Eske horrek gabaz bardin juten die alturan baiña aurrie garbi badauken horrek gabagaitti ta eunegaittik zertzen, horrek atzien han, eurek urtenda aurreko topien laiñue ta zea ikusten badabe, orduen zertzen die estutzen die harek zea itten dau hori, garraxie da hori.

7. Politika

7.1. Gerra garaiko bizipenak

- **Hizlaria(k):** Barruetabeña Guenaga, Juanita

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bereziartua, Aitor - Ibarzabal, Patxi - Unamuno, Alberto
- **Erref**: EBA-020/001
- **Iraupena**: 2:05:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 02:05:00
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra garaiko bizipenak.

Transkripzioa

<p>- Han Kalamuako puntetik honutz, “pakun”, ekue eitten eban /eitxeban/, ta han tirue botaten ebenien reketiek hona, beste mendire, bueno, eitten eban. Ta hona, teillature, balak etorten zin; indar gitxiaz, e? baiña “klin, klin, klin, klin” ta "han! adios! oin be. Han, “pakun” ekue eitten eban, ta ha eitten ebanien, teiltatuen balak.</p>

<p>Kalamuako puntan euezan reketiek, ta hamen, hemetiko beste mendixen, honutzakuen, hortxe bertan, Kalamuako mendixe, baiña honutzakuen euezan hamenguk. Ta hor, hamen soldau euezanak, gurera etorten zin armoseta.</p>

<p>Gurin egon zin ordun... nire tia zan San Migelgo Belaustegikue. Oin tabernie da San Migelen. Tia zan ha. Eibarren bizi zan. Ta harek Eibarkuk be geurera etorritte euezan. Ta gero, San Migelen, ba, zelan frentie euen hor, San Migelgo familixe dana ta behixek be ekarri zittuen, behi bi edo hiru, geurera, hartu sokatik eta. Buf... Belaustegikuek danak. Aitte zaharra bakarrik etxin gatu zan, ta haxegaittik salbau zan hau etxiau bonbardeau barik. Apuntaute euen gure etxie han Belaustegin, listie ei zeuen zertzuk bonbardeau biher zittuen /bizitxuen/. Aitte zan hangotxie, gure tion andrian aittek esan: “Deskuidaute hortxe daukezuen zerien ez eizue bonbaik bota”. Hamen jentie egoten giñen asko gu, 62 lagun geure kortan egon giñen, behetik kañoie hasi zanin. Ta haretxek Belaustegikuegaitxik salbau zan hau etxiau bonbardeau barik.</p>

<p>Reketiek sartzen zinien, ba hau euen ia apuntaute, baserrixo, hemen jente asko ikusten zan lez, abioitik, baju-baju-baju ibiltten zin hemen abionetak. Uuu... Milizianuk etorri eitten zin hona, armusu jatera edo, zozer, zozer. Ordun ogixe be baltza euen, baiña hor soldau euezan mutil gizajuek etorten zien. Ta azkenin, reketik sartzea... reketik hartu ebenien hartu ebena, honaxe etorri zin despeditzea gurera, negarrez. Armusetan egoten zin hamen. Mutil batzuk onauk...! Ha zan ona ha, billurgarrixo! Hor joten ebanin... kañoiek, botaten zittuen “xiu xiu xiu”, ta gu beti begire, gaztik genguzen gu, beti begire nun ikusiko ete gendun. Joten eban han Kalamua azpizen ta hatxa dao hor mendixen asko, harrixo joten ebanien, hara, zartadie...! Kristelak-eta “dar-dar-dar-dar” eitten eben. Ta gero Belaustegin, eskerrak egon zan, lehen be esan dot iñoz ta, haxegaittik salbau da hau etxie.</p>

<p>Nire aman nebak, bi, gazten bixek, nire ama zanan nebak, Etxebarriko Etxetxukuk. Ordun honenbeste urtetik erun eitten zittuen. Bueno, bata bai, bestie ez, geure ama zanan nebak.</p>

<p>- Eta zeintzuk zien?</p>

<p>- Sebero… Juan ta Sebero, gazten bixek, zazpi neba-arrebatik gazten bixek. Harek e, hamenguen partetik, alde gitxikuk be bazin ta bixek batera suerteti zan itzela, ezta? soldau erutie ta bixek hilttie, gazten bixek. Parin egon ta hiltten badi hil, ta bizik badaz, bizirik kontau.</p>

<p>Leku askotan. Enee... Ordun itzela izen zan. Barriro ez daixela etorri

halakoik. Oin holaku etorriko balitze, oin dauezan adelantukin, triskauko eben dana.</p>

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Soldaduek baserria hartu (EBA-006/002)

Mari Karmenek sei-zazpi urte zituela etorri zen gerra. Gerra sasoian soldaduak sartu zitzaizkien etxera, eta alde egin behar izan zuten handik. Zuloeta baserria soldaduen kuartela izan zen denbora batez. Amaren senide batzuen baserrira joan zen familia. Han gau bat egin, eta, gero, Xemeingo sakristauaren etxean egon ziren sei hilabeteen. Sakristaua beraien esne-bezeroa zen.

2. Sei hilabeteren ostean, baserrira bueltatu (EBA-006/003)

Gerra denborako kontuak. Sei hilabete egin zituzten etxetik kanpo. Soldaduek baserria utzi zutenean, etxera bueltatu ziren. Soldaduek etxea apurtuta utzi zuten. Etxe aurreko patina (putzua) munizioz beteta utzi zuten.

3. Jateko kontua gerra denboran (EBA-006/004)

Gerra denborako kontuak. Xemeingo sakristauaren etxean egon ziren denboran, Mari Karmenen aitak behiak eduki zituen. Larrera eramaten zituen jatera. Bildutako esnea ingurukoen artean banatzen zuten. Soldaduek menditik ekartzen zituzten eurei soberan gelditutako hondarrak, eta aitak horrekin hazten zituen txerriak. Sakristiaren atzean egoten ziren txerriak. Denbora hartan galarazia zegoen txerriak hiltzea. Aitak, ordea, ezkutuan hiltzen zituen, eta inguruko guztiak mantentzen ziren haregaz.

4. Kanpai hotsa, babesera joateko abisua (EBA-006/005)

Gerra denborako kontuak. Hegazkinen eta bonben abisua emateko kanpaiak entzutenean, Xemeingo kanpandorrera joaten ziren denak babes hartzera. Bonbak jausitako hainbat toki aipatzen ditu.

5. Soldaduei jatekoa prestatu behar (EBA-006/006)

Gerra denborako kontuak. Zuloeta baserrira soldaduak sartu zireneko kontuak. Soldaduek auzotik lortutako oiloak ematen zizkieten Mari Karmen amari, eta amak jatekoa prestatu behar izaten zien. Ganadu batzuk beraiekin eraman zituzten Xemeinera, eta beste batzuk, berriz, senide batzuen baserrira.

6. Laboreak eta dotrina (EBA-006/008)

Etxebarriko eskolan bi urte egin eta merzedarietara joan zen josten ikastera. Laboreak egiten zituzten. Dotrina, maistrarekin eta abadearekin ikasi zuen: gaztelaniaz eta euskaraz.

7. Aita, abarkagilea (EBA-006/009)

Mari Karmenen aitak larruzko abarkak egiten zituen. Abarkak nola egiten zituen azaltzen du. Behiaren edo txahalaren larrua erabiltzen zuen abarkak egiteko.

8. Oinetakoak (EBA-006/010)

Mari Karmenen aitak larruzko abarkak egiten zituen. Gero, gomazko abarkak. Abarketak. Zapatak, jaiegunetarako.

9. Jaunartzeko arropa (EBA-006/011)

Gerraostean gabezia handia zegoen. Mari Karmenek bederatzi urterekin egin zuen jaunartzea, eta jaunartzerako arropa egiteko oihalik ezin bilatuta ibili zen ama. Senide baten kamisoi baten telarekin egin zioten jaunartzeko soinekoa, salmoi kolorekoa. Sandaliak eta galtzak Gernikan erosi zizkion amak.

10. Jaunartzea (EBA-006/012)

Mari Karmenek bederatzi urterekin egin zuen jaunartzea, gerraostean. Zazpi eta bederatzi urte arteko umeek egin zuten jaunartzea, elkarrekin. Tiak elizako ospakizunera joan ziren, eta, gero, etxean bazkaria egin zuten. Arratsaldean, Mari Karmen eskolara joan zen. Goizean, katekistek txokolatea eta gailetak ematen zizkien.

11. Ospakizun giroko bazkariak (EBA-006/013)

Etxean egiten ziren ospakizunetan zer jan ohi zen: garbantzuak, untxia, arroz-esnea, sagarrak, madariak...

12. Madariak eta sagarrak (EBA-006/014)

Fruta-arbolak zituzten Zuloeta baserrian. Madaiak eta sagarrak biltzen zituzten. Etxean egiten zuten sagardoa. Madariak: orandila, San Pedro makatzak... San Juan sagarra, Karmen sagarrak...

13. Esnea banatzen (EBA-006/015)

Eskolara bidean, esnea banatzen zuten. Etxez etxe joaten zen esnearekin.

14. Ondarroako plazara (EBA-006/016)

Mari Karmenen ama Ondarroako plazara joaten zen baserriko jeneroa saltzera. Gerora, Mari Karmen ere joan izan zen. Melokotoiak, sagarrak, azak, porruak, arrautzak... eramaten zituzten. Labean erretako arto asko saltzen zuten Ondarroan. Arrautzak banaka saltzen ziren. Ondarroara nola joaten ziren kontatzen du.

15. Arraindunak (EBA-006/017)

Ondarroako plazara joaten zirenean, arraina erosten zuten gero. Etxebarrira Juana Mala arrainduna joaten zen, arrain-otarra buruan hartuta. Mari Karmenen aitari asko gustatzen zitzaion arraina. Arraindunari arraina ordaintzeko, dirua eta baserriko jeneroa.

16. Goserik ez, baina gabezia bai (EBA-006/019)

Gerra denboran eta ostean ez zuten goserik pasa, baina gabezia bai. Baserriko jendeak ez zuen goserik pasatu. Baserritarrek kaleko jendeari laguntzen zien.

17. Errazionamendua (EBA-006/020)

Gerraosteko errazionamendua nola izaten zen kontatzen du Mari Karmenek. Azukrea, kafea, txokolatea... hartzen zituzten errazionamenduko kartilarekin. Ogi beltza. Azukre "moraue". Astean behin egiten zuten ogia baserrian, baina gerra denboran soldaduak baserrian egon zirenez, haiek jaten zuten ogi guztia.

18. Galtzerdiak egiten, soldaduek erosteko (EBA-006/021)

Xemeinen egon ziren denboran, ama eta beste emakume batzuk artilea egin eta galtzerdiak egiten zituzten. Gero, soldaduek erosten zizkien galtzerdiak. Soldaduek soberan gelditutako jatekoa ematen zien, txerri-jana.

19. Uztaren parte bat entregatu behar (EBA-006/022)

Auzoko errota itxita egon ziren garaiaz hitz egiten du. Jendea beste toki batzuetara gauez joaten irin bila. Baserrian bildutako uztaren parte bat udaletxean entregatu behar izaten zen. Errazionamenduko jakiak dendan hartzen ziren.

20. Aita kartzelan egona (EBA-006/024)

Mari Karmenen aita Markinako kartzelan egon zen. Gero, Bilbora eraman zuten. Aitari zinegotzi izan zelako heriotz-zigorra jarri zioten, baina libratzea lortu zuen. Aitak harreman ona egin zuen motxaileekin kartzelan egon zen denboran.

21. Txahala saldu behar, aita bisitatzera joateko (EBA-006/026)

Aita kartzelan egon zen denboran ama bisitan joaten zitzaion. Bilboko kartzelara joateko, ordea, dirua behar zuela eta, bankura joan zen kartilarekin dirua ateratzera. Bankariak ez zion dirurik eman kartila senarraren izenean zegoelako. Amak txahal bat saldu behar izan zuen dirua lortu eta Bilbora joateko. Handik aurrera, kartila bien izenean jarri zuten.

22. Hildako soldaduak ikusi (EBA-006/028)

Gerra denborako oroitzapenak. Hildako soldaduak lurrian ikusi izana gogoratzen du Mari Karmenek. Kanposantura ere eramaten zituzten gerran hildakoak.

23. Gerran, Xemeingo eliza apurtu (EBA-006/030)

Gerrako bonbardaketen ondorioz Xemeingo eliza, aldarea... erabat apurtuta gelditu zen.

24. Maisuak "distancia de metro" eskatu (EBA-006/032)

Eskolako pasadizoa. Behin maistra gaixo zegoela, maisuarekin eman zuten eskola. Maisuak "distancia de un metro" esaten zien, baina beraiek ez zuten ulertzen "distancia" horrek zer esan nahi zuen.

25. Itaurren egin behar (EBA-006/033)

Ia egunero joaten zen eskola, baina baserrian egiteko garrantzitsuren bat zegoenean etxean gelditu behar izaten zuen. Itaurren egin behar, eta eskolara ezin joan. Eguraldi txarrarekin ere baserriko lanetan aritu behar.

26. Kriada (EBA-006/034)

Umetan, auzoko neska batek zaintzen zituen Mari Karmen eta anaiak. Kriadari ez zitzaion soldatarik ordaintzen, mantu trukean aritzen zen. Kriada bolada batean osaba fraide batekin joan zen, eta handik bueltatu zen euskara ahaztuta, baina berehala egin zen euskarara.

27. Aita Ameriketara artzain ibilia (EBA-006/035)

Mari Karmenen gurasoek askorik ere ez zekiten gaztelaniaz. Aitak zortzi urte egin zituen Idaho, Nevada, Newport (AEB)... aldean artzain, anaia bategaz. 16 urterekin joan zen Ameriketara. Handik etorri zen bueltatzeko asmotan, baina andregaia bilatu eta bertan geratu zen. Aitak ingelesez zenbakiak kontatzen eta hitz batzuk esaten irakatsi zion Mari Karmeni.

28. Lagunarteko jolasak eta kartoizko panpina (EBA-006/038)

Auzoan neska-mutil kuadrilla elkartzen ziren. Ezkutaketan, harrapaketan, arin-arinka... jolasten zuten. "Muñeka" (panpina) bat eduki zuen. Mari Karmenekin batera hazitako lehengusinari kartoizko panpina zikindu, garbitzen hasi eta apurtu egin zitzaion.

29. Etxeko giroa (EBA-006/040)

Mari Karmenen gurasoak baserritik bizi ziren. Baserrian zenbat senide bizi ziren aipatzen du. Mutikoek bikana egiten zuten lo. Mari Karmenek gehienez bakarrik egiten zuen lo. Luzaroan, ordea, Ondarroako neska bat baserrian bizi izan beraiekin osasun arazoak zituelako, eta hark Mari Karmenekin egiten zuen lo.

30. Eskolako materiala (EBA-006/041)

Eskolako materiala: pizarra, luma, tintontzia, sekantea, klariona...

31. Maistra (EBA-006/043)

Etorri berritan maistrak Txominenez egiten zuen jan eta lo. Gero, eskola gaineko etxean bizi izan zen. Maistra Leongoa zen izatez, eta 16 urterekin iritsi zen Etxebarria. Beste maisu batekin ezkondu, eta bi ume izan zituzten.

32. Mojetako giroa (EBA-006/044)

Etxebarriko eskolan ibili eta gero, mojetan ibili zen josten ikasten. Eskolako giroari buruz hitz egiten du.

33. Pilotariak (EBA-006/046)

Mari Karmenen gazte denboran ere baziren pilotari profesionalak herrian. Amak ez zuen nahi izaten Mari Karmen pilotarien aurretik pasatzerik.

34. "Euskaldunak, tontoak" (EBA-006/047)

Lehen, Markinan euskara gutxiago entzuten zen. "Euskaldunak, tontoak". Erdaraz egin behar zen. "Bajeza zen euskaraz berba egitea". Baserritarrek ere gutxietsi egiten ziren.

35. "Señoritinak" eta mortifikazioa (EBA-006/048)

Mari Karmenen gazte denborako Markinako kaletarrak, "las señoritinas". Señoritinek eguerdian sagar erdia eta iluntzean beste erdia jaten zuten: mortifikazioa. Denerako zituzten kriadak. Elegante janzen ziren.

36. Dantzara, preparatuta (EBA-006/050)

Domeketan Markinara joaten ziren dantzara. Itxuraz, preparatuta joaten ziren kalera: jaieguneko arroparekin eta zapatekin. Ezpainak margotuta. Orrazkera, permanentea.

37. Erromeriak eta soinu-jotzaileak (EBA-006/051)

Domeketan egiten zen erromeria Markinan. Bolada batean Etxebarrian ere egiten zen erromeria. Soinu-jotzailea egoten zen, normalean. Mari Karmenen osaba batek erromerietan soinua jotzen zuen, diru truke. Osabaren soinua zaharra zen, eta hari soinua konpontzen laguntzen zioten. Soltean eta lotuan dantzatzen zuten.

38. Erromeriatik etxera (EBA-006/052)

Erromeriatik etxera bueltan, estu ibiltzen ziren. "Aramaittekoak" jotzerako, etxean egon behar izaten zuen. Lagunartean joaten ziren etxera.

39. Inguruko jaiak (EBA-006/053)

San Joanetan Abadiñora joaten zen erromeriara. Barinagara, San Pedro jaietan. Inguruko ermitetako jaietara joan ohi zen.

40. Karmengo jaiak (EBA-006/055)

Garai bateko Karmengo jaiak nolakoak ziren kontatzen du. Ilusio handiarekin bizi zituen jaiak. Tiobiboak egoten ziren. Erromeria egiten zen hiru egunean. Garia ebakitzeko garaia izaten zen, ordea, eta baserrian eginkizunak izaten ziren. Danborrada geroagoko kontua da. Karamelerak.

41. Udar, titiriteroak (EBA-006/056)

Uda partean, titiriteroak joaten ziren herrira gurdiekin. Titririteroen ikuskizunak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Bandeja pasatzen zuten dirua biltzeko.

42. Ijitoak (EBA-006/057)

Mari Karmenen baserriaren atzean tejabana bat zegoen, eta han egoten ziren ijitoak. "Txomin motxailie". Motxaileak andrea aldatu omen zuen. Ezin zuten denbora asko pasatu toki batean.

43. Baserritik Etxebarriko eskolara oinez (EBA-007/002)

Lehen zazpi urtetik hamabi ingurura izaten zen eskola, baina erdietan ez ziren joaten, eguraldi txarragatik edo etxean lanak zituztelako. Etxebarriko eskola: behean eskola eta goian maisu-maistren etxeak. Andabidetik joaten ziren oinez, lasterbidea zen eta.

44. Etxebarriko eskola eta San Migelgoa (EBA-007/004)

Auzoko ume guztiak elkarrekin joaten ziren eskolara. Eguraldi txarra zenean abarkak busti eta oinetako bustiekin egon behar izaten zuten eskolan. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren eskolan. San Migelen ere bazen eskola eta

bertako Berdeskunde baserriko alaba zen maistra. Han neska-mutilak elkarrekin egoten ziren.

45. Eskolan argiak ziren mutilak goragoko ikasketetara (EBA-007/006)

Maisu erdalduna zuten. Bizimoduak irakatsi omen dio berari eskolak baino gehiago. Eskolan argiak zirenak goragoko ikasketak burutzera eramaten omen zituzten. Neskek, ordea, ez zuten aukera hori izaten.

46. Kaletarrek "mendikoei" burla eskolan (EBA-007/008)

Eskolan baserritarrei barre egiten omen zieten, ezjakinak zirela eta. Behin "Txomiñena" tabernako semearekin ernegatu zen eta alkandora apurtu ei zion. Handik aurrera bakean utzi omen zuen.

47. Etxebarriko auzo eta baserriak; armarriak (EBA-007/010)

Unamunzaga auzoko baserriak. Etxebarriko beste auzo eta baserri batzuk. Inguruko baserri bati armarria lapurtu zioten, eta herritar batek basoan aurkitu ei zuen. Auzoko Unamunzaga baserriak ere badu armarria.

48. Auzo-bideak auzolanean egindakoak (EBA-007/011)

Soldadutza egin ostean egin zuen euren baserrirako bidea. Bidegurutzearaino auzokoen artean egin zuten bidea. Basatza handia zegoen eta harri gurdikada ugari bota behar izan zituzten. Aurreragokoak etxean argirik eta urik gabe bizi izan ziren.

49. Baserriaren errenta: 1600 kilo gari eta beste hainbat elikagai (EBA-007/012)

Inguruan gehienak etxejabeak izan arren, eurak erreterroak ziren. Baserriaren errenta 1600 kilo garitan. Garia irin-fabrikara eraman eta handik ateratako diruarekin ordaintzen zen errenta. Bi osteria egin behar izaten zituzten gariarekin, ganaduarentzat karga handia zelako. Horrekin batera, bildotsak, oilaskoak, arrautzak, indabak... denetarik eman behar izaten zioten etxejabeari urtean zehar.

50. 1600 kilo gari irin-fabrikara, errenta ordaintzeko (EBA-007/013)

Garia uztaila-abuztuan jotzen zuten eta, makinan garbitu ostean, irailean 1600 kilo entregatzen zituzten Okoki irin-fabrikan. Gari haren diruarekin ordaintzen zen baserriaren errenta. Baserria bi bizitzakoa zen, eta beste bizitzakoek alde egin zutenean, aitzak baserri osoa hartu zuen. Orduan errenta bikoiztu egin zen. 60 kilo indaba biltzea gogorra zen.

51. Garia 1964 inguruan erein zen azkenengoz Etxebarrian (EBA-007/014)

Zemendian ereiten zen garia eta San Pedroak inguruan heldu. Lurra laiatu egiten zen garai batean. 1999an gari-lanen inguruko erakustaldia egin omen zuten Etxebarrian. Bestela, 1964 inguruan erein zen azkenengoz garia inguruetan.

52. Ainubean bizitzen ohituta (EBA-007/015)

Euren baserria ainubean dago, eta paraje bustia eta hotza omen da, baina ohitu egiten da. Esaera: "mendixen jaixo eta mendixen bizi; hatxien jaixo eta hatxien hil".

53. Idiekin egiten zuten goldaketa (EBA-007/016)

Lurra lantzeko tresnak: lehenbizi laiak eta gero golde txiki bat. Bostortza. Tresna guztiak gordeta dituela dio. Idiekin egiten zuten goldaketa, behiek baino indar handiagoa zuten eta.

54. 1950 ingurura arte argia kandlekin eta karburoarekin; gero ur-saltotik (EBA-007/017)

Lehen ez zen argirik etxeetan eta kandlekin edo karburoarekin ibiltzen ziren. Karburoa nolakoa zen. 1950 ingurutik inguruko hiru baserrik ur-saltoari esker izan zuten argia, baina egunean hiru orduz bakarrik. 1967-1968 inguruan jarri zuten argindarra.

55. Karburoarekin eta kandlekin etxeak su hartzeko arriskua (EBA-007/018)

Karburoarekin eta kandlekin kontuz ibili behar izaten zen baserrietan, etxeak su hartzeko arriskua zegoen eta. Orduan erdi-ilunpean ere ikusi egin behar izaten zen. Inguruetan etxe bakarra ezagutu du erretzen, Bizkaia eta Gipuzkoako muga.

56. Ur faltarik ez etxean; uraren zeharkako bidea (EBA-007/019)

Ur faltarik ez dute izan inoiz etxean, kanpoko askan bazegoen eta. Baldeetan etxera eraman behar. Ur-lekua da. Ura ez da goitik behera zuzen joaten inoiz, beti "trabes" joaten ei da. Iruiturrin, mendi magalean egon arren, ura jaiotzen dela dio.

57. Lur-klaseak; eguraldiaren eragina lurrean (EBA-007/020)

Lur-klaseak: buztin-lurra, hare-lurra, troska-lurra (beti lehorra dagoena). Euren buztin-lurra da, sendoa, laborantzarako ona; baina eguraldi lehorra behar. Onena lur beltza dela diote, baina azalekoa izaten da, eta erraz sikutzen da. Lurrari egiten zaizkion arrakalak.

58. Lehengo simaurra hobea, ganaduari jateko garbia ematen zitzaiolako (EBA-007/021)

Simaurrak eta kareak asko hobetzen dute lurra. Baina oraingo simaurra ez da lehengoa bezalakoa, ganaduari gaur egun jateko artifizia ematen zaiolako. Ganaduarentzat jateko garbienak garagarra, artoa eta oloa dira. Pentsuek azkarrago gizentzen dute ganadua, baina ez dira hain osasungarriak. Ganaduaren gaixotasunak zabaldu zirenetik berak etxean hazitako ganaduaren okela besterik ez ei du jaten.

59. Artifizialki hazitako oilaskoak, hazte prozesua azkartzeko (EBA-007/022)

Oilasko samurragoak artifizialki hazitakoak izaten dira. Oilaskoak berez 6-7 hilabete behar baditu hazteko, denbora hori murriztu egiten dute artifizialki. Jaki naturalekin eta librean hazitako oilaskoak gogorragoak izaten dira.

60. "Lanparoiak" detektatzeko kanpainari kritika (EBA-007/025)

Sasoi baten "lanparoiak" zituzten ganaduak detektatzeko kanpaina egon zen. Positibo ematen zuten ganaduak hil egiten zituzten. Josek dio haragi falta zegoelako egin zutela hori; hartara, ganaduak hiltzera eramaten ziren eta, gainera, beraiek jartzen zioten prezioa. Berari 55.000 pezeta ordaindutako idi-pareagatik 20.000 baino gutxiago ordaindu zioten.

61. Gizarte segurantzaren eta medikuari ordaintzea (EBA-007/027)

Gurasoei hilean hainbesteko bat (subsidioa) ordaintzen zitzaion umeengatik; eta, beste aldetik, gurasoek gizarte segurantzaren ordaintzen zuten, erretirora begira. Medikua aparte ordaindu behar izaten zen. Denbora askoan zazpi pezeta ordaindu zuten "igualatorioa", eta gero kontsulta merkeagoa izaten zen.

62. Osabaren ebakuntza ordaintzeko diru-iturriak urri (EBA-007/028)

Aitaren anaia bat gaixotu egin zen umetan; biriketan orbana geratu zitzaion. Operatu ere egin zuten eta diru asko kostatu zen, gainera. Miserian bizi izandakoak direla dio. Bost anai-arreba, gurasoak, aitita-amamak eta osaba gaixoa bizi ziren etxean. Eta diru-iturririk ez.

63. Amama Elgoibarko azokara arrautzak saltzera (EBA-007/030)

Amama Elgoibarko azokara joaten zen etxeko gaiak saltzera, Ondarroatik Elgoibarrera zihoan autobusean. Etxeko arrautzak kalean saltzen zituzten, olio pixka bat edo azukrea eskuratzeko; eta eurak beste zerbaitekin behar.

64. Etxean egindako sagardoa, domeketan bakarrik (EBA-007/032)

1959 ingurura arte ez zuen ezagutu ardorik etxean. Sagardoa bai, etxean egindakoa. Beheragoan zegoen dolarea. Inguruko sagardorik onenak non egiten ziren. Gizonek edaten zuten etxean sagardoa, baina domeketan bakarrik. Domeketako jateko berezia garbantzua izaten zen.

65. Zezina nola egiten zen (EBA-007/033)

Zezina. Haragiari gatza eman eta 8-15 egunean gatzetan eduki. Gogor-gogor jartzen zen haragia. Atera eta askako iturrian egun erdiz eduki ostean, eseki. Lapikorako izaten zen normalean; arrautzak azokara saltzen zituzten eta ezin tortillarik egin.

66. Inguruak garbi-garbiak; abisuak zapi zuri bidez (EBA-007/034)

Lehen ez zegoen azeririk, inguruetako basoak ere garbi zeudelako. Orain dena pinua eta sasia. Lehen inguruko baserriak ondo ikusten ziren eta batetik bestera hitz egin zezaketen. Batzuetan elkarri abisuak pasatzeko zapi zuria jartzen zuten.

67. Eguraldia (EBA-008/001)

Eguraldiari buruzko azalpenak. Aurtengo udaberrian haritzak lizarrak baino lehenago atera du hostoa. Aitonari entzuna dio haritzak hostoa lehenago ateratzen duen urtean, "udaberri eskasa eta jeneroa hala-hola".

68. Kuarta-denborak (EBA-008/002)

'Calendario Zaragozano'n argitaratzen dituzte kuarta-denborak. Asteazken, ostiral eta larunbatean, gaueko hamabietan, haizeak nondik jotzen duen zaindu behar da.

69. Ilargiaren eragina (EBA-008/003)

Eguraldiari buruzko azalpenak. Ilargiaren eraginaz hitz egiten du. Martitzenak eta barixakuak arriskutsuak direla dio Josek. Egun horietan ilargi berria denean, ilargiari erreparatu behar zaio.

70. Barixakuz, bederatziurrenean ere trumoia (EBA-008/004)

Barixakuan trumoiak jotzen badu, bederatzi egunera ere trumoiak joko du.

71. Haizea eta aitona (EBA-008/005)

Haizearen joerak markatzen du eguraldiaren bilakaera. Aitonagandik ikasi zituen eguraldi kontuak. Aitona 82 urterekin hil zen. Jose, 18 urterekin, andero joan zen aitona gorpua Etxebarrira eramaten. Kuarta-denborak.

72. "Veranillo de San Martín" (EBA-008/006)

Azaroaren 11an, San Martin Eguna bueltan, izaten da "veranillo" delakoa. Hiru bat egunean eguzkiak pixka bat gehiago berotzen ei du. "Veranillo de San Martín... tres días y fin".

73. San Migeletan ona bada... (EBA-008/007)

San Migeletan (irailak 29) eguraldi ona badago, menbrilo eta ezti onak izaten omen dira. "San Miguel buen membrillo y buena miel".

74. Lehen elurte itzelak (EBA-008/009)

Joseren gazte denboran, elurte itzelak egoten ziren. 15 egunean eskolara joan gabe egoten ziren elurragatik. Metro erditik gorako elurrak egiten zituen. Orain ez omen du lehengo moduko negurik egiten. Ganaduak azkar igartzen du elurra datorrela. Zaldiek neguan mendian behera egiten badute, denbora txarra datorren seinale.

75. Lainoak eta haizeak (EBA-008/011)

Lainoak nondik datozen begiratzan die Josek. Itsasoko lainoa. Haize motak eta bakoitzaren berezitasunak. Hegoarekin, mendebalarekin eta iparrarekin lainoak nora mugitzen diren azaltzen du. Ziklogenesia.

76. 1956ko uholdeak (EBA-008/012)

Garai bateko euriteak. 1956an izan zen uholdeari buruz hitz egiten du. Azpeitia aldean urak autobus bat eraman zuen, eta 18 lagun hil omen ziren. Lehen kotxe gutxiago eta errepideak ere ez ziren gaur egungoak bezalakoak.

77. Ganaduarekin hiltegira, oinez (EBA-008/013)

Lehen ganadua oinez eramaten zuten hiltegira. Markinara, Elgoibarrera edota Eibarra oinez joaten ziren ganadua hiltegira eraman behar zutenean.

78. Etxebarriko dendak eta tabernak (EBA-008/014)

Etxebarrian bi denda-taberna zeuden: Tomasenekoa (Etxebarrikoentzako denda) eta Jose Mari Etxaberena (Kilarramendikoentzako denda). Denda horietan zer jenero edukitzen zuten aipatzen du. Jose mutikoa zela 100 litroko olio botilak 8 duro balio zituen.

79. Animalien kopia eta seboa, jakiak prestatzeko (EBA-008/015)

Txerriaren koipea eta ganaduaren seboa erabiltzen zituzten jakiak prestatzeko. Olioia garesti zegoen.

80. Baserrirako bidea egin (EBA-008/016)

Auzoan ez zuten tabernarik. Auzo-biderik ere ez. 1974an egin zuen baserrirako bidea. Bidea egiteko lanei buruzko azalpenak. Dirutan zenbat kostatu zitzaion. Basolanean ateratako diruarekin ordaindu zuen obra. Joserren aita zenak ez zuen nahi izan biderik egiterik errenteroak zirelako, eta, bidea eginez gero, baserriaren balioa igo egingo zelako.

81. Basolana (EBA-008/017)

Basolanean ibiltzen zen Jose, jornalean. Negu partean, eguna motza zen garaian, ez zien deitzen lanera joateko. Eta eguna luzatzen zuenean, berriz, beharrera joateko deitzen zien.

82. Basoa hartu, apeak egiteko (EBA-008/018)

Besterentzat basolanean jornalean jardutearekin aspertuta, baso bat hartu zuen lehengusuarekin erdibana apeak egiteko. Urte birako epean hartu zuten basoa. Ateratako diruarekin, baserrirako bidea egin zuen.

83. Aita hil eta hiru urtera baserria erosi (EBA-008/019)

Auzo-bideari buruzko azalpenak ematen ditu. Joserren aita zenak ez zuen nahi izan baserrirako biderik egiterik errenteroak zirelako, eta, bidea eginez gero, baserriaren balioa igo egingo zelako. Aita hil eta hiru urtera baserria erosi zuen Josek.

84. Negu partean, jornalean (EBA-008/020)

Gaztetan basolanean ibiltzen zen Jose. Uda partean, etxeko lanetan aritzen zen beti. Negu partean, oster, jornalean etxetik kanpora, baina baserriko lanekin uztartuz.

85. Pinua: ereitea, sartzea eta botatzea (EBA-008/023)

Pinu sartzan ibilia da Jose. Pinua nola sartu behar den azaltzen du. Pinua botatzeko sasoi onena, 34-35 urte egiten dituztenean: handik aurrera zahartu egiten da (pinua lehorte egiten da, eta balioa galtzen du). Pinua sartzeko sasoi, negua. Pinu hazi erein, berriz, udaberrian.

86. Ilargia eta okelaren samurtasuna (EBA-008/024)

Ilargiaren eragina ganaduaren okelaren samurtasunean. Ilbeheran hildako ganaduaren okela samur-samurra izaten da. Ilberrian hildakoa, berriz, "tiragoma baino gogorragoa". Txerriarekin ere gauza bera pasatzen da.

87. Ahuntza eta antxumea (EBA-008/025)

Ahuntzaren umeari antxumea esaten diote Etxebarrian. Ahuntza ilbeheran hiltzea hobe da. Ahuntza animalia lehorrakoa da, grasa gutxiago edukitzen du bildotsak baino.

88. Txerri-hiltzea eta umeskea (EBA-008/026)

Txerri-hiltzeari buruzko azalpenak. Txerria hiltzerako garaian, kontuan izan behar da ez dadila "umeskea" (altan) egon. Txerria eta behia altan hilez gero, haren okelak usaina edukitzen du, eta okela bigunakoa izaten da.

89. Oilalokak, arrautzak eta txitak (EBA-008/028)

Oilaloka arrautzen gainean egoten da, eta haren epeltasunarekin txitak arrautzetatik irtetzen hasten dira. Arrautzek 22 egun egiten dituzte: 22 egunean txita arrautzatik irtetzen da. Lehen, oiloak kanpoan ibiltzen ziren, eta edozein tokitan egiten zituzten arrautzak.

90. Etxebarriko errota eta irin-fabrika (EBA-008/030)

Etxebarrian hiru errota zeuden: Urrusolo errota, Errotabarri eta Antsotegi errota. Garia eta artoa ehotzen ziren. Arto-irina Urrusolotik hartzen zuten. Gari-irina, oster, Okoki irin-fabrikatik.

91. Laka, errotariaren ordaina (EBA-008/031)

Errotako kontuak. Errotara 50 kiloko arto-zakua eramanez gero, kiloko hainbesteko bat kentzen zuen errotariak errotako lanaren ordain moduan: 10etik 1 edo 2 errotariarentzat izaten zen, "laka" deitzen zitzaion horri. Astoan zakuak kargatuta joaten ziren errotara.

92. Zortzi egunerako ogia (EBA-008/032)

Zapatuetan egiten zuten zortzi egunerako ogia. Lehenago, artoa ere erretzen zuten labean. Arta-zopak.

93. Errazinamenduko ogia (EBA-008/033)

Gaztetan ogia noiz jango egoten ziren. Errazinamenduko ogia, astean hiru barratxo jasotzen zituzten Markinatik.

94. Abadearen bedeinkazioak eta errenta (EBA-008/034)

Errenta gariarekin ordaintzen zuten, dirutan jarri zuten arte. Ez du ezagutu garirik entregatzen zutenik udaletxean. Abadeari oilaskoak ematen zizkien bedeinkazioaren truke. Abadeak baserrira joateari utzi zion, eta Josek laga egin zion oilaskoak emateari.

95. Kanpaiak eta "imillaune" (EBA-008/035)

Lehen Etxebarrian hil-kanpaiak, hamabitakoak, "aramaittekuak"... jotzen ziren. Urtean bitan "imillaune", hiru kiloko zakua, ematen zitzaion kanpai-jotzaileari: batean artoa eta bestean indabak ("indiarak").

96. "Eztok/n eta baidok/n" (EBA-008/038)

Betidanik izan du "eztok/n eta baidok/n"... hika hitz egiteko ohitura gizon-emakumeekin. Pertsona zaharragoei zuka egin izan die. Gurasoek eta aiton-amonek berari, hika... baina berak haiei ez. Berori, abadeari eta medikuari bakarrik.

97. Sakamantekas (EBA-008/040)

Sakamantekasi buruzko kontuak umeak beldurtzeko esaten ziren. Gizon bat zaku handi batekin umeak harrapatzen ibiltzen zela esan ohi zen.

98. Anaia Argentinara, soldadu ez joatearren (EBA-009/003)

Anaia nagusiak ez zuen soldadu joan nahi eta Argentinara joan zen. Han hotela jarri zuen. Argentina ekonomikoki ondo zegoenez, anaia gazteagoari ere hara joateko esan zion, eta beste bi anaia ere hara joan ziren.

99. Argentinarako bidaia itsasontziz (EBA-009/005)

Anaiak Argentinara itsasontziz joan ziren, lehenbiziko aldian. Hilabete egin zuen anai nagusiak bidaian. Bilbon hartzen zen barkua.

100. Aitaren hiru arreba Argentinara (EBA-009/006)

Anaiak joan ziren sasoia baino lehenago jende asko joan zen Argentinara bizimodua ateratzera; ganadua, esnea, laboreak... ziren diru-iturriak. Aitaren hiru arreba ere joan ziren; gazteenak 15 urte izango zituen. Errezatzen ba omen zekiten, baina eskolara joan gabeak ziren. Gutun bidez egoten ziren harremanetan.

101. Mundua geldik zegoen eta aurrerapenekin izugarrizko aldaketa (EBA-009/007)

Etxebarrian telefono bakarra zegoen eta baita Markinan ere. Duela 55 urte hasi zela hemen mundua mugitzen dio, aurretik geldik omen zegoen. Argentinan lehenago hasi zen aurrerapen hori, baina hona ere iritsi zen, eta gero neurri gabekoa izan omen zen aldaketa. Beste gizaldi baten ez dela berriz halako aldaketa handirik gertatuko dio.

102. Gerraostean Bilbo aldetik jende asko eskean (EBA-009/010)

Gerra ondorenean jende asko ibiltzen zen eskean. Bilbo aldetik etortzen ziren asko. Lanik ez zuten langileak ere ba omen ziren. Gose handia egon zen gerraostean.

103. Gerraostean etxeko gaiak udaletxean entregatu behar (EBA-009/011)

Artoa, garia, arbia... ereiten zuten. Baserrian ez zen izaten goserik, baina gerraostean jasotakoaren zati bat entregatu egin behar izaten zuten udaletxean. Garia, artoa, indaba... denetatik.

104. Estraperloko olio litroak 100 pezeta (EBA-009/013)

Estraperloa eta kontrabandoa ezagutu ditu, baina eurak ez ziren inoiz ibili. Estraperloko olio litroak hogeitaz ogerleko balio zituen. Markina-Xemeingo 'Esperanza' lantegian egunean 3 pezeta irabazten ziren orduan.

105. Emakumeak su-egurra batzera basora; argindarrik ez (EBA-009/014)

Inguruan baziren pinu gutxi batzuk eta inguruetatik emakume asko etortzen ziren etxerako su-egurra batzera. Orduan ez zegoen argindarrik baserrietan. Kandlekin, petrolioarekin edo karburoarekin egiten zuten argi. Gerora errotatik ipini zuten argia.

106. Aurrekoengandik entzundakoak (EBA-009/015)

Lehen negu gogorak izaten ziren. Hala ere, eguraldia ez dela hainbeste aldatu dio; sarritan gaia behar delako esaten omen dituzte halakoak. Aurrekoek esaten omen zuten, lehen inguru guztian itsasoak zirela, eta itsasoa erretiratzean sortu zirela mendi eta haranak.

107. Inguruko baserri eta errotak sortu ziren garaiari buruzko jakinmina (EBA-009/016)

Etxebarrian 8-10 errota egon omen ziren sasoi batean. Txominek jende jakitunari galdetu izan omen dio sarri ea inguruetako baserriak eta errotak egin zirenean, ze mugimendu gertatu zen, halako eraikinak sortzeko; baina ez du erantzunik jaso izan.

108. Inguruko sail batean zekalea hartzen zen (EBA-009/017)

Bere aitari sarri entzun izan zion goragoko lur-sail batean zekalea hartzen zela. Errotak garia, artoa, zekalea... ehotzeko sortu ziren. Baina errotak sortu ziren garaian zer mugimendu egon zen jakitea gustatuko litzaioke.

109. Bere aitaren garaian etxe berririk ez zen egiten (EBA-009/018)

Inguruko errota asko berak ez ditu martxan ezagutu. Garai batean baserri eta errota ugari egin zirela aldi berean dio, baina gero geldialdia etorri zen. Bere aitaren garairako dagoeneko etxe berririk ez zen egiten ia. Inguruko etxe eta errotak egin ziren garaian zer gertatu zen jakin nahiko luke. Etxeren bat erretakoan, orduan auzokoek lagunduta eraikitzen zen berria.

110. Gerraostean ekonomiak eta ura etxeetara (EBA-009/021)

Gerra pasa eta laster jarri zuten ekonomia etxean. Euren izango zen inguruko lehenengotakoa. Urik ere ez zeukaten etxean. Errekatik ekartzen zuten baldearekin. Gerraostean jarri zuten ura ere etxean.

111. 1960 inguruko soldatak (EBA-009/022)

Duela 52-53 urte ukuilua berritu zuen eta langileek egunean hogei ogerleko kobratzen omen zuten. Berak ere egunean 10 ogerleko jasotzen zituen, duela 55-56 urte, basoan trontzarekin pinuak botatzearren.

112. 1953ko urriaren 14ko uholde izugarriak (EBA-009/023)

Bera soldadutzatik itzuli zenean, duela 60 urte, urriaren 14 batean, izugarrizko uholdeak egon omen ziren. Markinatik Ondarroara bidean luizia erori zen, baina ez omen zegoen Bizkaia osoan orgarekin jaso omen zuten lur guztia inguruko mutilek. Geroago hasi ziren hondeamakinak eta bestelakoak.

113. Zortzi urterekin basora idiekin (EBA-009/025)

Zortzi urte orduko hasi omen zen idiekin basora joaten. Basotik ekarri behar zenaren arabera gurdi desberdinak egoten ziren.

114. Markinako lehenengo kotxea (EBA-009/026)

Markinako lehenengo kotxea Urkijok ekarri omen zuen. Bestela bideetan gurdiekin edo astoekin ibiltzen ziren.

115. Zortzi urterekin basora aitari lagunztera (EBA-009/027)

Zortzi urterekin dagoeneko basora joaten zen idiekin. Nagusiek botatzen zituzten pinuak, baina idiak eraman edo bestelako lanak ere izaten ziren berarentzat. Eskolara ahal zenean joaten zen.

116. Basoko egurra kostaldera, barkuak egiteko (EBA-009/028)

Basoko egurra saldu ere egiten zuten, barkuak egiteko, esaterako. Ondarroara eramaten zen egurra, adibidez; menditik, ganaduekin. Elorrio ingurutik Zarautz ingurura ere eraman izan zela egurra entzuna du, 6-8 idi-parerekin.

117. Ondarroa-Vitoria errepide zaharrean gurdiekin (EBA-009/029)

Ondarroa-Vitoria errepidea omen da inguruetako zaharrena. Leintz Gatzagatik gora, bide horretatik joaten ziren gurdietan, Gasteiztik ardoa edo patata ekartzera. Lehengo gurdiek burdinazko gurpilak eta egurrezko ardatzak izaten zituzten. Bidean prest egoten ziren ardatza puskatzen zenerako.

118. Urte askoan etxe berririk ez Markinan (EBA-009/031)

Garai batean urte asko pasako zirela ia etxe berririk egin gabe uste du. Gerra garaian Urkaregin egon zen frontea eta Markinako etxe bat erre egin omen zuten. Gerraostean etxea berreraiki zuten; berrogeita hamar mila ogerleko kosta zela esaten zuten.

119. Garai batean jauregi ugari Markinan (EBA-009/032)

Garai bateko Markinak eta oraingoak ez dute antzik. Garai batean jauregi ugari omen zeuden herrian. Berak ezagutu zituen jauregi horien jabeak eta asko Ameriketan edo Kuban aberastutako gizonak omen ziren. Gaur egun etxeak daude lehen jauregiak ziren leku askotan.

120. Urkaregitik botatako kanoikadak gogoan ditu (EBA-009/033)

Gerra garaia gogoan du, artean umea izan arren. Etxebarri frontearen erdian zegoen eta jendeak alde egin zuen ahal zuen lekura. Errefuxiatuentzat artoa iritsi zen Markinara eta bere aitak astoarekin Etxebarrira eraman zuen. Bueltan zetozela, Urkaregitik kanoikadak hasi ziren eta eliza azpiko gordelekuan sartu ziren, astoa utzita.

121. Pistoirik gabeko kanoikadak Urkaregitik Karmengo elizara (EBA-009/034)

Karmengo elizara bota zituzten kanoikadak ez ziren behar bezala lehertu, antza denez, granadak preparatzen zituenak beste aldekoek lagundu nahi zien eta. Etxeberritik behera baserri-etxe eder bat erre zen kanoikada batekin.

122. Etxera itzultzean hutsik aurkitu zuten (EBA-009/038)

Urria hasieran alde egin eta apirilean itzuli ziren etxera. Hutsik aurkitu zuten. Lanean hasi behar aurrera ateratzeko. Etxean tiroek egindako zuloak zituzten.

123. Ansola lantegia (EBA-010/001)

Ansola lantegian ibili zen lanean 17 urtean; horietatik 10 egin zituen "enlace" moduan. Orbea gerentearekin ekoizpenari buruz edukitako eztabaida kontatzen du.

124. Asto-probak (EBA-010/003)

Gaztetan asto-probetan ibilia da Txomin. Lehenengo erronkan, 1.000 pezeta jokatu zituen. Etxeko astoarekin atera zen. Astoa jokoan ibiligabea zen: "hilabeteko preparatiboak bakarrik".

125. Probetako ganaduaren elikadura (EBA-010/004)

Probarako astoa nola preparatzen zen kontatzen du Txominek. Probetan ibiltzen den ganaduaren elikagaia: artoa, oloa eta baba.

126. Asto-probak: orduerdian 800 kiloko harriarekin (EBA-010/005)

Asto-proban egindako lehenengo apustua irabazi egin zuen Txominek, alde txikiarekin. Egitekoa: orduerdian 800 kiloko harriarekin zer astok buelta gehiago egin. Marka: ontza bi eta pixka bat gehiago. Lehen asto txikiagoekin eta harri handiagoekin ibiltzen ziren.

127. Ganadu-proben eta herri-kirolen bilakaera (EBA-010/006)

Lehen, idiak baserriko lanetarako erabiltzen: garraiorako, lurra lantzeko... Aurreneko ganadu-probei egiten die erreferentzia. Baserriko lanetan ibiltzen zen ganaduarekin errokan hasi eta hortik sortu ziren apustu eta probak.

Berrogei urtetik ona gauzak aldatu egin direla dio Txominek. Dirua ugaritzeak aldaketa ekarri zuen proba mundura. Jendea ganadua probarako propio prestatzen hasi zen. Herri-kirolen bilakaeraz hitz egiten du.

128. Apustuei ere neurria hartu behar (EBA-010/007)

Txominek parte hartu zuen lehen asto-proban 1.000 pezeta zeuden jokoan. Garai hartan 1.000 pezeta diru asko zen. Lehen jendeak diru asko jokatzeko zuen, orain baino gehiago. Apustuei ere neurria hartu behar zaie.

129. Emakumeak txikiteoan eta erretzen (EBA-010/008)

Duela 40 urte txikiteoa nola izaten zen azaltzen du. Orain 30 urte inguru, ordea, emakumeak hasi ziren tabernetan sartzen, eta Txominen iritziz "orduantxe galdu zen". Meza ostean, tabernara joaten hasi ziren neska gazteak. Emakumeak txikiteoan eta erretzen. Garai hartan Etxebarrian hiru-lau taberna zeuden.

130. Etxebarriko probalekuak (EBA-010/009)

Gaur egun probalekua non dagoen adierazten du. Bere aitaren garaian probalekua non zegoen azaltzen du.

131. Frontoia eta probalekua (EBA-010/010)

Gerra aurrean, "herriak" frontoia egin zen Etxebarrian. Eta orain dela 65 urte inguru, berriz, probalekua berritu zuten.

132. Probetako ganadua (EBA-010/012)

Probetan ibiltzen diren ganaduari buruz hitz egiten du. Txominek dioenez pisuaren arabera astoa da probetako animalia gogorrena.

133. Aspirina, kafea koinakagaz... ganadua alegretzeko (EBA-010/014)

Lehen, probetan ibiltzen ziren ganaduei ez zien analisirik egiten. Aspirina, kafea koinakagaz, ardoa... eman ohi zien abereei, "alegretzeko": gizakiongan duten eragin antzekoa dute abereengan.

134. Ganadua pisatzea (EBA-010/015)

Proba aurretik ganadua pisatu egiten da: pisuaren muga errespetatzen den ikusteko. "Pisu librekoak" esaten zaienak, ordea, ez dira pisatzen.

135. Idi-proben bilakaera (EBA-010/016)

Lehen idi-probetan orain baino marka txikiagoak egiten ziren: idiak oraingoak baino txikiagoak ziren, eta harriak, berriz, handiagoak. Lehen astoek eta zaldiek ez zuten probarik egiten. 3.000 kilora arteko harriak erabiltzen ziren, eta idiek, oster, 900 kilo inguru pisatzen zuten. Gerora, 2.000 kilo azpitik pisatzen zuten harriak erabiltzen hasi ziren, eta idiek, berriz, 950 kilo inguru. Ididunak ez du nahi izaten aberea karga handiari lotuta ibiltzea, alferrik galtzen baita. Gaur egun, idi-parea 1.100 kiloren bueltan ibiltzen da. Orain ganadua handiagoa da.

136. Gainkarga (EBA-010/017)

Gaur egun, idi-parea 1.100 kiloren bueltan ibiltzen da. 1.100 kilo gainditzen dituen idi-pareari gaindututako kilo bakoitzeko kilo eta erdi gehiago jartzen zaizkio harriaren gainean.

137. Pisatu ostea jaten eman idiei (EBA-010/018)

Idi-probetako gorabeherak. Idiak pisatzerako garaian tripa hutsik pisatu, eta pisatu ostean jaten eman. Ez da tranpa, egin daiteke.

138. Idi-arrazak (EBA-010/019)

Idi-arrazei buruzko azalpenak ematen ditu Txominek. Bertako ganadua beti izan da lodiagoa eta bigunagoa: okelatarako ganadu hobe. Kantabria, Asturias... aldekoak larrean hazitakoak izan ohi dira: horregatik da ganadu gogorragoa. Lehen ere bazen ohitura ganadua kanpotik ekartzekoa. Ferietan erosi ohi zen ganadua.

139. Ganadu feriak (EBA-010/020)

Ganadu feriak egiten ziren hainbat herri aipatzen ditu: Markina, Zorrotza, Gasteiz, Gernika, Torrelavega... Tratanteak.

140. Hezitako ganadua (EBA-010/021)

Idiei beharrian nola irakasten zaien azaltzen du Txominek: animaliak uztartu eta sorora eraman. Zeanurin, esate baterako, ganadua hezita saltzen zutela kontatzen du. Irakatsita dagoen aberea erosteko joera.

141. Idi-probetan ibilitako herriak (EBA-010/022)

Idi-probetan nondik-nora ibili den kontatzen du Txominek. 20 herri baino gehiago zerrendatzen ditu.

142. Marka onena (EBA-010/023)

Ganadu-probetan kopa asko irabazia da Txomin. Marka onena Arraten egin zuen: 84 plaza.

143. Orduerdiko lana (EBA-010/024)

Idi-probak orduerdikoak izaten dira. Astoenak 20 minutuak ere izan ohi dira jaietan-eta, lehia ez ofizialetan. Beharra behar den moduan eginez gero, orduerdian ganadua izan zein gizona izan dezente "beteta" egoten dela dio Txominek.

144. Bi lagun idiekin (EBA-010/025)

Idi-probei buruzko azalpenak. Bi lagun ibiltzen dira idiekin: bat aurretik eta bestea atzetik. Aurretik joaten dena idien buruetan jarritako tirei helduta joan ohi da. Atzetik joaten denak, berriz, harriari heltzen dio. Idia geldi geratzeaz hitz egiten du.

145. Uztarriak eta zapak (EBA-010/027)

Probetarako ganaduari zapak eta uztarria jartzen zaizkio. Uztargileak. Uztarriak pago-egurrekin egin ohi dira jeneralean. Uztargilea erremintekin joaten zen etxera: egurra norberak jartzen zuen.

146. Uztartzea (EBA-010/028)

Ganadua nola uztartzen den azaltzen du Txominek. Gaur egun sokak erabiltzen dituzten ganadua gobernatzeko. Lehen, ordea, ganaduaren larruaz etxean egindako erak erabiltzen ziren. Burtera.

147. "Karretero" ezagunak (EBA-010/029)

Lehen orain baino desafio gehiago egiten zen. Txominek akorduan dituen "karretero" ezagunak: Batista Arrieta, "Iketza", Patxi Torre, Ikan, Burgo, Atxuri...

148. Desafio entzutetsuak (EBA-010/030)

Desafio entzutetsuei buruz hitz egiten du. Aipatutako desafio bat: idi-parea bakarraren kontra. Jokoa neurrian ibili behar dela dio Txominek.

149. Ganaduaren probako urteak (EBA-010/033)

Idi-parea lau-bost urtean proban ibiltzeko "suerte handia behar da". Astoek urte gehiago egiten dituzte probetan.

150. Idien eta astoen izenak (EBA-010/034)

Astoei eta idiei izena jartzen die: Txato, Gorri, Apala, Txulo...

151. Baserritik eskolara joan-etorriak oinez (EBA-012/002)

Jesusa sei urterekin hasi zen eskolan. Eguzkitze baserritik eskolara oinez egiten zituen egunean osterat bi. Gaur egun umeak autobusez edo taxi jasotzen dituzte eskolara eramateko. Autobusak ere baziren, baina ordutegia ez zetorren bat eskola ordukin. 7 urteko neba eta biak gora eta behera ibiltzen omen ziren, "ahuntzen antzera. Kanean emakume batek galtzetin bustiak gordetzen zizkien eta eurak eskolan ziren bitartean sikatu. Abarkekin ibiltzen ziren normalean. Gerora katiuskak hasi ziren.

152. Aitak abarketak josten zituen (EBA-012/003)

Agustin eta Maribelen aitak abarketak josten zituen. Azkoititik ekartzen zituen zolak. Gero etxeko dendan saltzen zituzten abarketak.

153. Baserririk baserri telak saltzen (EBA-012/004)

Agustin eta Maribelen ama Bilbora joaten zen eta herriko jendeak etxekoentzat arropak ekartzeko eskatzen zioten, herrian ez zegoen erosteko aukerarik eta. Agustin 1952an etxerik etxe telak saltzen ibili zen. Etxeko dendarako ekartzen zituzten telak Bergaratik edo Bilbotik, eta gero astoarekin baserririk baserri joaten zen Agustin, saltzen.

154. Agustinena izan zen Markinako lehenengotako kotxea (EBA-012/005)

1953an ekarri zuen kotxea Agustinek. Berea izan zen Markinako lehenengotako kotxea. Gidatzeko baimena nola lortu zuen azaltzen du. 1928ko egurrezko kotxe bat erosi zuen 55.000 pezetan. Euren etxea 22.000 pezetan erosi zuten, hamar urte lehenago.

155. Amak jauregia erosi nahi izan zuen (EBA-012/006)

Euren etxeak 22.000 pezeta balio zituen. Aurreko jauregiak 28.000 ogerleko balio omen zituen 1948an, inguruko lur-sail eta guzti. Euren amak jauregia erosi nahi zuen, baina aita beldurtu egin zen sortuko zuten zorrarekin.

156. Markina inguruko jauregi eta dorretxeak; Gaitan Aiala familia (EBA-012/008)

Herrian dauden zenbait jauregi eta dorretxe aipatzen dituzte. Gaitan Aiala familia omen da Bizkaiko baserri ugariren jabea. Patrokua jauregia ere euren omen zen.

157. Baserritarrei elikagaiak erosi eta Eibarren saldu (EBA-012/010)

kotxearekin "erregateru" egiten omen zuen. Baserritarrei elikagaiak erosi eta Eibarko azokan edo tabernetan saltzen zituen. Asteazken eta larunbatetan joaten zen Eibarrera. Inguruko ganadu-feria inportanteenak Markinakoa, Elgoibarkoa eta Gernikakoa.

158. Neskak josten ikastera 14 urterekin (EBA-012/012)

Agustinen ama jostuna zen eta 22 neska izaten zituen josten ikasten. Neskek 14 urterekin ikasketak bukatzen zituzten eta josten ikastera joaten ziren. Jesusak ezkondu ostean josten ikasi zuen. Bere amak ez zuen izan ezer ikasteko aukerarik, eta asko iruditzen zitzaion josten ikastea ere.

159. Muxu ematea ere bekatu! (EBA-012/013)

Agustin kexu da hogei urterekin neska-laguntzera Eguzkitze baserriraino joan eta muxurik ere ez zuelako jasotzen. Bekatu omen zen. Gainera, abadeari kontatzen zioten dena. Maribelek fraide batek kofesatu zueneko pasadizoa kontatzen du.

160. Jauna hartu aurretik ez jan eta ez edan (EBA-012/015)

Euren sasoiari herrian 2 abade zeuden: Frantzisko eta Martzelino. Aurretik 3 abade ere egoten omen ziren, eta baserrietan ere egoten ziren tarteka abadeak edo fraideak. Jauna hartu ahal izateko, ezer jan gabe egon behar zen aurreko gaueko 12etatik; urik ere ezin zen edan. Gerora ura edatea baimentzen hasi ziren.

161. Herriko pertsona inportanteenak: abadea, sekretarioa eta maisua (EBA-012/017)

Abadeari errespetu handia zitzaion. Berori esaten zioten, eta eskuan muin eman. Herrian inportanteenak abadea, sekretarioa eta maisua omen ziren. Medikuri ez zuten Etxebarrian bertan, Markinatik etortzen zen.

162. Telefonoa zuenak jendeari errekaduak eman behar (EBA-012/019)

Telefono bakarra zegoen herrian. Beraiek eduki zuten. Telefonoa zuenak errekadua emateko obligazioa zuen, eta batzuetan mendi puntara joan behar izaten ziren, edozein ordutan. Dena dela, batzuetan ondo hartzen zituzten baserrietan. Behin bost ogerleko eman zizkioten Agustini.

163. Zaragozan soldadutza egin eta pilotan jokatu (EBA-012/020)

Zaragozan egin zuen soldadutza Agustinek, eta bertan hasi zen profesional gisa pilotan, 18 urterekin. Baina denbora gutxi egin zuen. Debutatzera kanpora irten behar izaten omen zen. Inguruetan zaletasun handia egon da pilotarako. Txutxo eta Tarzan izan ziren herrian onenetakoak.

164. Etxebarrian erromeria domekero (EBA-012/022)

Inguruetako erromeriak. Etxebarrian domeka guztietan egoten zen erromeria. Eguraldi txarra zenean aroztegi baten, eta bestela frontoian. Agustinek dio apaizari ez ziola egia osoa kontatzen konfesatzerakoan. Etxebarrian baimenduta zegoen dantza lotua. Baina Garizuman debekatuta zegoen musika. Soinujoleak. Jaietan Markinako Musika Banda egoten zen. Mutilak joaten ziren neskengana dantza eskatzera.

165. "Mariaren alabak" zirelako, kalabaza (EBA-012/023)

Behin Agustin eta lagun bat Elgoibarrera joan ziren jaietan. Neskei dantza eskatu eta ezetza jasotzen zuten "Mariaren alabak" omen zirelako. Txiste modura kontatzen du.

166. Neskak Salbadora maistrarekin; mutilek urtero maisu berria (EBA-012/029)

Eskolan neskak maistrarekin egoten ziren eta mutilak maisuarekin. Doña Salbadora, aguraindarra. "Hablen en cristiano" esaten omen zuen beti. Bera ez omen zen oso gogorra, baina gizona bai. Mutilen irakasleak urtetik urtera aldatu egiten ziren. "Cara al sol". Zigorrak.

167. Maisuak txiza edanarazten zien (EBA-012/030)

"Don Pirulo" maisuak poto batera txiza egin eta edanarazi egiten omen zien mutilei. Gaitzizena zergatik jarri zioten.

168. Zazpi hilabete etxetik alde eginda (EBA-012/034)

Fronteak zazpi hilabete iraun zituen inguruetan (Kalamuan). 1936ko urrian hasi eta 1937ko apirilera arte. Jesusa eta familiakoak etxetik alde eginda egon ziren zazpi hilabetez, milizianoak egon zirelako euren baserrian. Ganadu batzuk eurekin eraman zituzten, baina beste batzuk milizianoek erosi zizkieten "diru zurixagaz", Euskadiko diruarekin. Itzuli zirenean etxea nola zegoen.

169. Gerra garaiko oroitzapenak eta gerora entzundakoak (EBA-012/036)

Hasiera batean milizianoak pasa egin omen ziren aurrera, baina erreketek atzean gelditu zirenean berriz itzuli omen ziren, eta Jesusaren baserri inguruan kokatu. Gernikako bonbardaketa Agustinek 5 urte bete zituen egunean izan zen. Gogoan ditu hainbat kontu. Inguruan ere bota zituzten bonbak. Esaten zuten Urkaregin bolbora kentzen zietela bonbei, eta batzuk ez zirela lehertzen. "Esperanza" lantegian munizioak egiten ziren.

170. Gerraostean, baserri eta lursail gutxi zen herrietan miseria (EBA-012/037)

Gerraostean Etxebarrian ez zuten hainbeste gose pasatu, etxe guztiek zutelako soroa edo baratzea. Ogi gosea bai pasa zuten. "Txusko" bat ematen

zieten okindegian. Ondarroan edo herri handiagoetan egoera latzagoa izan omen zen, "miserixa alu". "Diru zuria"ren (Euskadiko diruaren) kontuarekin jendeak dirua galdu zuen, gero diru horrek baliorik ez zuen izan eta.

171. Taberna eta denda gerra aurretik, gerra garaian eta ostean (EBA-012/038)

Gerra garaian milizianoek hartu zituzten taberna eta denda. Aitak etxe aurreko putzuan gordeta zituen ardo batzuk, baina haiek ere aurkitu zituzten. Gerraostean estraperloa. Gauza batzuk ezin ziren eduki eta inspektorea zetorrenean ezkutatu egiten zituzten.

172. Estraperloko gaiekin egiten ziren tranpak (EBA-012/039)

Dendan errazionamendua nola egiten zuten. Estraperloa egiten zuten gerraostean, baina batzuetan ziria sartzen zieten estraperloko gaiekin, eta isilik egon behar gainera.

173. Estraperloko olioak lapurtu zietenekoa (EBA-012/040)

Frantziatik kontrabandoan ekartzen zen olioak; gero, hura erosi eta estraperloan saldu. Gipuzkoatik Bizkaira edozer gauza pasatzeko zergak ordaindu behar izaten ziren, eta polizia foralak egoten ziren zaintzen. Behin Elgoibartik zekarten estraperloko olioak baserri batean gorde zuten eta ostu egin zizkieten hogeit hamar litroko bi garraioak.

174. Oilaskoen zerga ez ordaintzeko, eskupekoa (EBA-012/041)

Agustin Eibarrera joaten zenean oilaskoak saltzera, zerga ordaindu behar izaten zen. Baina aurkitu zuen irtenbidea: zaintzen zegoenari 10 pezetako eskupekoa eman eta aurrera.

175. Irin-fabrikan kopuru mugatua; ezkutuan errotetara (EBA-012/042)

Gerraostean garia, indaba eta patata entregatu egin behar izaten zuten Jesusaren etxekoek. Garia irin-fabrikara eramaten zuten ehotzera, baina han mugatuta zuten kilo kopurua. Orduan, ezkutuan, Gizaburuagara joan behar izaten zen aita, karroa hartuta. Batzuetan Guardia Zibilak "erosi" egiten zituzten, haiek ere gosea izaten zuten eta.

176. Aitari estraperloan gertatutako pasadizoak (EBA-012/043)

Agustinen aita ere behin ezkutuan Gizaburuagara joan zen errotara. Bueltan zetorrela Guardia Zibilekin egin zuen topo. Astoa orratzarekin ziztatu zuen etxerantz alde egin zezan. Beste behin zilarrezko txanponekin gertatutako pasadizoa. Estraperloan harrapatuz gero, isuna.

177. Irin-fabrikan ehuneko bat kentzen zuten irina ehotzearren (EBA-012/044)

Irin-fabrikan hainbesteko bat kentzen zuten irina ehotzearren. Baina sarritan behar zena baino gehiago kentzen zuten. Gainera, kartila bat izaten zuten eta ezin izaten zen kopuru batetik gora eho. Orduan, ezkutuan joan behar izaten zuten inguruetakoa errotetara. Jesusaren etxeko morroia amorratu egiten zen irin-fabrikako lapurretarekin.

178. Morroiak (EBA-013/001)

Lehen lan guztiak eskuz egin behar izaten ziren baserrian, eta jendea behar izaten zen lanerako. Baserrietan morroiak egoten ziren. Morroiak 1.000 pezeta urtean irabazten zituen, eta jan eta lo etxean egiten zuen. Munitibar eta Mendata aldetik gazte asko joaten zen morroi.

179. Gerra sartu zeneko alkatea (EBA-013/003)

Gerra Etxebarrira iritsi zenean herrian alkatea nor zen aipatzen du Agustinek. Alkateak alde egin zuela dio: Agustín eta Maribelen tio Txominen laguna zen gizona.

180. Gerra denborako alkatea eta tio Txomini salaketa (EBA-013/004)

Gerra denboran herriko alkate nor izan zen aipatzen du Agustinek. Alkate hark Agustinen eta Maribelen tio Txomini salaketa jarri zion, eta Larrinagako kartzelan hiru urte egin zituen preso. Heriotz-zigorra ere jarri zioten, baina hainbat ahalegin egin eta gero libre geratu zen. Agustín joana da mutikotan Larrinagako kartzelara osaba bisitatzerara.

181. Etxean ez zuten politikaz hitz egiten (EBA-013/005)

Gerra eta gerra osteko kontuak. Heriotz-zigorrarekin ez zuten herriko inor hil. Herritarren arteko salaketak. Markinan hiru-lau lagun fusilatu zituztela dio Agustinek. Etxean ez zuten politika kontuez hitz egiten.

182. Aita kamineroa (EBA-013/006)

Agustinen eta Maribelen aita kamineroa zen. Gerra denboran batetik bestera zebilela tiroak gertu sentitu zien aitak. Postaria hil omen zen tiroak jota.

183. Anbotoko Mari eta Sakamantekas (EBA-013/008)

Anbotoko Mariri buruzko kontuak kontatzen zizkien etxean. Jesusaren amak Marirengan sinesten zuen. Sakamantekas nor zen. Sorgin kontuak, baserrietako jendea eta umeak beldurtzeko. Pistolak agertu zirenean, sorgin denak desagertu.

184. Jendea beldurtu kalabazekin (EBA-013/009)

Agustinek umetan egindako gaiztakeria jendea beldurtzeko. Kalabaza hustu eta barruan kandela piztuta sartu. Gero, erromeriatik bueltan zetozen neskak beldurtzeko bidegurutzean jartzen zuen kalabaza. Sakamantekasi buruzko kontuak.

185. Sinesmenak eta bisioak (EBA-013/010)

Sinesmena: bidegurutzetan arimak agertzen zirela uste ohi zen. Goseak eragindako bisioak, hildakoak ikustea...

186. "Meza ateratzea" (EBA-013/012)

Norbait hildakoan hildakoari "meza ateratzeko" ohitura. Meza eskaintzen ez zenetan, arima libre zebilela esaten zen. Hildakoei buruzko sinesmenak.

187. Sepultura eta elizako ohiturak (EBA-013/013)

Lehen elizan sepulturak zeuden. Sepulturari urtebetea kandela eta trapu beltz bat jartzen zitzaion. Meza nagusia izaten zenean, kandela piztu egiten zen. Antzina, elizan bertan lurperatzen ziren hildakoak. Beraien gurasoek ere ez omen zuten hori ezagutu. Meza garaian, emakume bakoitza bere aulkian eseritzen zen; gizonezkoak, berriz, bankuetan. Gizonezkoak aurrean eseritzen ziren, eta emakumeak, oster, atzean. Emakumeak mantilarekin joan behar ziren mezara.

188. Lutoa (EBA-013/014)

Lutoa. Beltzez janztea. Medio lutoko arropa, osaba hil zelako. Lehen arropa egin egin behar izaten zen; egindako arropa kapitaletan bakarrik egoten zen.

189. "Elizan sartzea" (EBA-013/015)

Familia edukitakoan, haurraren bataioa egiten zen. Ama etxean geratzen zen. Emakumea hilabetea egoten zen etxetik irten gabe. "Elizan sartzea" (zeremonia), emakumea kandela batekin joaten zen elizara, eta abadeak elizan sartzeko baimena ematen zion.

190. Erditzeak (EBA-013/016)

Jesusak lehenengo haurra galdu egin zuen. Etxean hasi zuen erditze prozesua, baina erditzea hasi eta berehala zibor-hestea atera zitzaion, eta Eibarko ospitalera eraman zuten. Jaiotzeko unean, haurra ito egin zen. Ondorengo bi haurrak etxean eduki zituen, medikuarekin. Aurretik, parterak ibiltzen ziren. Maribelek ospitalean eduki zituen haurrak. Etxean erditzearen arriskuez hitz egiten dute.

191. Lehen ume asko hiltzen zen (EBA-013/017)

Lehen ume asko hiltzen zen jaioberritan. Hil-kanpaiak. Umeak hiltzen zirenean, kanpaiak era jakin batean jotzen ziren.

192. Asunak, sukarra eta gripea sendatzeko (EBA-013/020)

Asun sorta batekin gaixo zegoenari lepoan igurztea edo jotzea, sukarra eta gripea kentzeko. Min eta erre handia lagatzen du azalean asunak. Txerriekin ere erabiltzen ziren asunak.

193. Frontea bertan hilabete luzez (EBA-053/003)

Gerra garaian, ondoko etxea erre zuten eta bere etxea apurtu. Markinara joan ziren ihesi, baina ume asko zirenez, etxera bueltatu ziren. Ahal zuten moduan ezkutatzen ziren. Fronteak hilabete asko iraun zuen. Kainoiak etxe ondoan ipini zituzten.

194. Don Jose Peña, aita Onaindia eta Larruskaingo apaiza fusilatuta (EBA-053/004)

Don Jose Peña apaiza fusilatu egin zuten Oiartzunen, aita Onaindiarekin batera. Haren ibilerak kontatzen ditu. Larruskaingo apaiza non fusilatu zuten kontatzen du.

195. Gerra osteko gosea eta eskasia (EBA-053/006)

Gerra ostean gosea pasatu zuten. Artoa entregatu egin behar izaten zuten. Artoa, baba, urdaia eta esnea jaten zituzten. Lana gogor egiten zutela dio.

196. Artazuriketa lagun artean (EBA-053/007)

Arrosarioa errezatzen zuten. Artazuritzen ibiltzen ziren amamarekin. Auzoetan gazteak aritzen ziren artazuriketan eta gero gaztaina erreak janda, erromeria egiten zuten. Ahoko soinua erabiltzen zuten orduan.

197. Fernandoren ipuina (EBA-053/008)

Fernandoren ipuina kontatzen du, emazteari ziria sartu zionekoa.

198. Etxera sartzeko trikimailuak, ipuina (EBA-053/009)

Markinan gertatutako pasarte barregarri bat kontatzen du.

199. Lana denek, gizonak erromeria ere bai (EBA-053/010)

Garia eskuz jotzen zen eta ondoren makinarekin. Bukatutakoan, afaria eta erromeria egiten zituzten. Ezkondu zenean, ordea, lana bukatutakoan etxera joaten zen, gizonak lasai geratzen ziren bitartean. Berdin feriara; beti gizonak. Genero berdintasuna oso ondo iruditzen zaio.

200. Auzolanaren osteko jatorduak (EBA-053/011)

Garia ereiterakoan, auzolanean egiten zen. Goizago hasi eta hamarretakoa egiten zuten. Ardoa edaten zuten. Sagardoa ere bai, etxean egiten zuten eta. Garia ereitearen lanak bukatutakoan, montxorra egiten zuten. Orduko jatorduak denak onak izaten zirela dio.

201. Goruetan ari ziren emakumeen kontua (EBA-053/012)

Lihoaren lanak aurretikoak izan zirela dio, berak ez duela ezagutu. Elkarrekin egiten zuten goruetan emakumeek. Aitak kontatutako pasarte bat kontatzen du. Kantu bat errezitatzen du.

202. Gereako apaizaren ipuina (EBA-053/013)

Gerea (Mallabia) auzoko apaizaren ipuina kontatzen du.

203. Mutil tontoaren ipuina (EBA-053/014)

Mutil tontoaren ipuina kontatzen du.

204. "Dringilin-drangulun" lo-kanta (EBA-053/016)

Sehaska kanta bat abesten du. "Dringilin-drangulun eragidazu, laster haziko naiatzu; halan bere ta lastertxuago, lepuan ibiltzen banozu."

205. "Ababatxue txutxulun berde" lo-kanta (EBA-053/017)

Sehaska kanta bat abesten du. "Ababatxua txutxulun berde, ez egin lorik basuen, azeritxuak erungo zaittu bildotsa zeralakuen."

206. Santa Ageda kantatzen, mutilak (EBA-053/018)

Gabonetan kantuz ez zen ibiltzen. Santa Ageda kantatzen ibiltzen ziren bere anaiak. Aitari eskatzen zioten koplak erakusteko.

207. Santa Ageda koplak (EBA-053/019)

Santa Ageda koplak abesten ditu.

208. "Patxi Baztarretxeko" kanta (EBA-053/021)

Apaizak erakusten zizkien kantak.

209. "Ixil-ixilik argitutzen da" kanta (EBA-053/022)

Kanta abesten du.

210. "Mutil koxkor bat" bertso sorta (EBA-053/023)

Bertso-sortako lehenengoa abesten du.

211. Gerra aurreko azken hauteskundeak (EBA-053/025)

Gerra aurreko hauteskundeetako pasartea kontatzen du, karlistei botoa emateko neska bat ekarri zutenekoa. Alderdiak elkarren kontra gogor aritzen zirela dio. Jose Luis Gaitan de Ayala diputatuaren amari gertatutakoa kontatzen du. Botoak ordaindu egiten zituzten. Errenteroak behartu egiten zituzten ugazabek esandakoa bozkatzera.

212. Intxaur-saltsaren errezeta (EBA-053/026)

Intxaur-saltsa zelan egiten den azaltzen du.

213. Babak egiteko errezeta (EBA-053/027)

Babak zelan prestatzen diren kontatzen du. Lehenago beheko sutan egiten zituzten. Lurrezko ontzian egindakoak goxoenak zirela dio. Garbantzuak eta arroz-esnea bereziak izaten ziren.

214. Morokila egiteko errezeta (EBA-053/028)

Umea izandakoan, oilo-salda ematen zioten amari. Okela gizonak jaten zuela esaten du. Morokila zelan egiten zen kontatzen du. Mahai borobilean eta ontzi batetik jaten zuten. Sagar errea izaten zen postrea .

215. Anbotoko sorgina zeruan (EBA-053/029)

Amamak kontatzen zion Anbotoko sorgina ikusi zuenekoa.

216. Neskame ibilitakoa (EBA-053/033)

Markinan egon zen neskame, Jose Maria Murgarekin. Gaztetan ere baserri batean egon zen neskame, bi urtez. Ahuntzak zaintzen ibiltzen zen.

217. Lehenago lana gogor, baina ondo bizi (EBA-053/034)

Lana gogor egindakoa dela dio. Hamabost urte ingururekin, astoarekin plazara joaten hasi zen, saltzera. Laguntasun handiagoa zegoela dio. Ondo eta konformidade gehiagorekin bizi zirela lehen esaten du.

218. Baserriaren gainbeherak auzolanarena ekarri du (EBA-053/035)

Baserritik bizi ziren lehen asko, baina hain jarri zen egoera larri, lantegietan lanean hasi beharra izan zuten. Lan handirik egin ez, eta bakoitza bere lekuan geratu zela dio. Soralezera sarri joaten zen, sagarrak saltzera.

219. Fernandoren erbiaren ipuina (EBA-053/036)

Fernandoren ipuina kontatzen du, egurretara joan eta ehiztariei ziria sartu zienekoa.

220. Peru eta Marixe, eta lapurren ipuina (EBA-053/038)

Peru eta Marixeren ipuina kontatzen du, lapurrekin gertatutakoa.

221. Azeria eta otsoaren ipuina (EBA-053/040)

Azeria eta otsoaren arteko pasarteak kontatzen dituen ipuina.

222. San Juanetako kanta (EBA-053/042)

"San Juan de la puerta Letaña, zapatu arratsaldian, hamalau atso tronpeta jotzen motroilo baten gaiñian. Urran, urran, urran San Juanetan, dantzan egingo dogu ipar haixetan. Ju, ju, ju, San Juanera guaz gu."

223. Zesta-punta gustuko (EBA-060/002)

Julenek praktikan jarritako kirol guztien gaineratik zesta-punta aukeratu du. Horrez gain, animaliak gustatzen zaizkiola dio. Antxonentzat betidanik izan da ezaguna zesta-punta, aitek ere jokatzeko zuelako. Beste kirol batzuk probatu arren, beti zesta-puntari eman dio lehentasuna.

224. Zesta puntak eskatzen duen tartea (EBA-060/004)

Zesta puntan aritzeak ez die denbora asko kentzen Juleni eta Antxoni.

225. Familiaren babesa (EBA-060/005)

Familiaren laguntza ezinbestekoa izan dute zesta-puntan aritzeko.

226. Jokalari faltan (EBA-060/007)

Julenek dagoeneko Antxonekin batera jokatzeko zesta-puntan, nahiz eta Antxon nagusiagoa izan. Jokalari zaharren artean guztiek ezagutzen dutela elkar diote.

227. Zesta-puntan jokatzeko era (EBA-060/008)

Zesta-puntan jokatzeko era ezberdinak aurkeztu dira. Gaur egun "set" era da nagusi gure artean, baina Ameriketan, Filipinetan, eta beste leku batzuetan "Kiniela" eran ere jokatu izan da.

228. Zesta-puntaren ospea (EBA-060/009)

Zesta-puntak garai batean izugarritzko garrantzia zuen, bai atzerrian baita hemen ere.

229. Zesta-punta eta turismoa (EBA-060/010)

Iparraldean turismoa da zesta-puntaren eragile eta bultzatzaile nagusia. Bien arteko lotura bat sortu dute zesta-punta suspertzeko.

230. Umeak zesta-puntara erakartzeko kanpainak (EBA-060/012)

Gero eta ume gehiago ari dira zesta-punta ezagutzen.

231. Zesta nola egiten den (EBA-060/014)

Zesta-puntako zestak eskuz eginiko artelanak direla iruditzen zaie. Gaztainondo ez eginiko egiturari zumitza gehitu behar izaten zaio. Hogeita lau ordu inguru behar izaten dira zesta bat egiteko.

232. "Zesteroak" faltan (EBA-060/015)

"Zesteroak" gero eta nagusiagoak dira; tamalez, badirudi etorkizunean lanbide horrek ez duela jarraipenik izango.

233. Telebistaren beharra zesta-punta hedatzeko (EBA-060/017)

Bat egiten dute biek telebistak zesta-puntaren hedapenean izugarrizko garrantzia izan dezakeela diotenean.

234. Pilotalekuan arriskua, pilotak hartzen duen abiaduragatik (EBA-060/018)

Pilotak abiadura handia hartzen duenez, beti egoten da arriskua pilotalekuan. Eurak ez dute susto handirik izan. Lagun batek jasotako pilotakada aipatzen dute. 130-140 gramo izaten dute pilotek eta 180-200 kilometro orduko abiadura emango diotela gutxi gorabehera pentsatzen dute. Errekorra 306 inguruan ei dago.

235. Zesta-puntako epaileen ekipamendua (EBA-060/020)

Zesta-puntako epaileek ekipamendu berezia izaten dute: kaskoa eta erraketa. Hala ere, Antxonen ustez, ekipamendua janzteia baino askoz hobea da pilota non dabilen ondo begiratzea.

236. Mexikoraino zesta-puntari esker (EBA-060/021)

Zesta-puntari esker Madrilera, Frantziara edo Acapulcora bidaiatu ahal izan du Julenek. Kirolak eraman izan ez balu, ez litzateke sekula Mexikora helduko.

237. Aranda de Dueroko frontoia (EBA-060/023)

Anekdotak bat dakar gogora Antxonek. Mexikon txapelketa irabazi ostean Aranda de Dueroko frontoiaren inaugurazioan jokatzeko deitu zieten. Frontoi txikia eta estali gabea da bertakoa, eta eguraldi euritsua tokatu omen zitzaion.

238. Zesta-puntak ez du bizitzeko lain ematen (EBA-060/024)

Ameriketan zesta-puntak dirua eman izan du orain dela gutxira arte. Baina gaur egun egoera bestelakoa da. Euskal Herrian ere esan daiteke zesta-puntak ez duela soldata bat eskaintzeko beste indar.

239. Zesta-puntan han eta hemen; bidaiak motibazio gisa (EBA-060/026)

Antxon mundu osoan zehar aritu da zesta-puntan: Ameriketan, Mexikon, Frantzia... baita Espainian barna ere.

240. Irabaztea beti da polita (EBA-060/028)

Galtzen jakitea beharrezkoa da irabazitakoan garaipena sentitzeko.

241. Lehiakortasun osasuntsua (EBA-060/030)

Bi zesta-punta jokalariek diote euren arteko lehia ona dela, lehiakortasun osasuntsua izatea beharrezkoa dela.

242. Txapelketa bereziak (EBA-060/032)

Zesta-puntaz milaka txapelketa jokatu arren, badira batzuk bereziak izan direnak eurentzat eta oroitzapen onak ekartzen dizkietenak.

243. Profesionalak maila berekoak (EBA-060/034)

Antxonek profesionalen aurka jokatzeko aukera izan du; hala ere, argi diosku zesta-puntan profesionala izateak ez duela beste kirolean bezainbesteko garrantzirik.

244. Zesta-punta jokalariek "festazale" fama (EBA-060/036)

Zesta-punta jokalariek parrandazale izatearen fama dutela diote. Garai batean, zesta-punta jokalaria artista gisa tratatzen zen. Hala ere, denetarik egongo dela uste dute.

245. Parrandarako lekuak (EBA-060/038)

Parranda egiteko garaian batez ere Markinara joaten dira biak, baina baita Elgoibarrera, Azkoitira eta Eibarrera ere.

246. Taberna giroa gustuko (EBA-060/040)

Julenek eta Antxonek tabernetan sortzen den giroa dute hizpide.

247. Reggaetoi zalea (EBA-060/041)

Gaur egungo musika jarraitzen du Julenek, batez ere, tabernetan jartzen duten reggaetoia.

248. Euskaldunak hotzak izatearen mitoaz (EBA-060/043)

Euskaldunon artean denetarik dagoela diote; badira itxiak diren pertsonak eta baita oso irekiak direnak ere.

249. Neskak zesta-puntan (EBA-060/044)

Zesta-puntan nesken taldeak gero eta ugariagoak dira gaur egun.

250. Mugikorraren mendekotasuna (EBA-060/046)

Mugikorre eragiten duten mendekotasunaz ari dira. Egunerokotasunean beharrezkoa den tresna bilakatu dela iruditzen zaie.

251. Mugikorre eta internetak duten boterea (EBA-060/048)

Sare-sozialei eta Internetari esker edozer jakin daiteke: datu-pertsonalak, kokagunea, zertan zabiltzan une horretan, etab. Mugikorre eta sare-sozialek gehiegizko kontrola eragiten dutela iruditzen zaie.

252. Amak etxean erditu zuen: emaginarekin, medikuarekin eta esperientziarekin (EBA-061/003)

Etxean jaio ziren anai-arreba guztiak. Bere garaikoak batzuk etxean eta beste batzuk ospitalean jaio ziren. Medikua eta emaginarekin izan zituen. Esperientziak ere garrantzia duela esaten zion amak. Gauza askotaz hitz egin izan du amarekin. Gazteena izateak asko lagundu dio, baita ikasle ona izatea ere.

253. Aita behargina eta musikazalea, ama jostuna eta zaintzailea (EBA-061/004)

Kaleko etxean jaio izan da, baina oiloak, untxiak eta ortua beti izan dituzte. Aitak Markinan lan egiten zuen lantegian eta amak tarteka jostun lanak egiten zituen. Gurasoek etxea zaintzearen truke bizi ziren bertan. Amak familiakoak, jabeak, jabeen familiakoak eta etxea bera zaindu zituela dio.

254. Etxezainak eta etxejabeak, galdera iturri (EBA-061/005)

Etxezainaren figura eta orduko bere bizipenak "Jostorratza eta haria" nobelan txertatu zituen. Jakin-mina sortzen zien etxejabeek, erdi-burgesak zirelako. Kontrastea sumatzen zuen eta galdera asko egiten zituen.

255. Ahotsa, lehenengo liburua (EBA-061/006)

Liburuak baino lehen, ahozkoa jaso zuen gehienik. Ahotsa lehenengo liburua dela dio, mundua kontatzeko tresna.

256. Aitak emandako musikazaletasuna (EBA-061/007)

Etxean asko kantatzen zuten. Aita musikazalea zen; soldadutza bandan joaz pasatu zuen eta Markinako bandan ere jotzen zuen. Ondo abestu arazten zien, belarria landu eta duoak egiten erakutsi zien, baita dantzari ere. Elizara laguntzen zioten aitari eta hunkidura sortzen diote oraindik ere elizako kantuek.

257. Hizkuntza musika moduan (EBA-061/008)

Irratia izaten zuten etxean, Arrate Irratia. Herri txikietako errituak ere bai: Santa Ageda koplak, gabon-kantak... Idazterakoan doinua barrutik sentitzen du. Hizkuntza musika moduan jaso izan du.

258. D titulua ateratzeko ariketetan, idazketan trebatu (EBA-061/009)

Antzerkia ikasten hasi zen. Bergarara D titulua ateratzera joan zen, EGA modukoa orduan. Ariketa literarioak egiten zituen. Batuan idatzi arren, bizkaiera dauka oinarrian.

259. Irigoienek "Poliedroaren hostoak" eta Sarrionandia (EBA-061/011)

Gaztetxoa zela, Juan Mari Irigoienek "Poliedroaren hostoak" liburuarekin ibili zen, eta gero Joseba Sarrionandia landu zuen, Eskoriatzan magisteritza ikasi zuenean. Sarrionandiaren mundu ikuskera oso hurbila egiten zitzaion. Joseba atxilotu zutenean, UNEDeko irakaslea zen eta Yolanda UNEDeko ikaslea.

260. Sarrionandiaren "Marinel zaharrak" antzerkira (EBA-061/012)

Joseba Sarrionandiaren "Marinel zaharrak" antzerkiaren bitartez landu zituen. Erronka bitartez funtzionatzen du: zer falta da euskaraz?

261. Hasierako idazle erreferenteak, gizonezkoak (EBA-061/013)

Urteekin konturatu zen idazle erreferente guztiak gizonezkoak zirela. Arantxa Urretabizkaia sartu zen geroxeago.

262. Literaturaren historia ezagutu zuen, magisteritza ikastean (EBA-061/014)

Eskoriatzan magisteritza ikasten hasi zenean, filologia adarra hartu zuen. Irakasleak aipatzen ditu. Han landu zuen euskal literaturaren historia. Emakume erreferenteak gerora lortu ditu.

263. Sormena, euskara, jatorria, andrazkoa, transmisioa (EBA-061/015)

Berak nahi izan du sormena landu euskaraz, jatorria kontuan hartuta eta andrazkoa izanda. Herri txikikoa zen baina mundukoa. Kuadrillazalea ez da izan. Identitatea lantzea ekarri zion guzti horrek. Hezkuntzan bai baina ez-arautuan aritu nahi zuen.

264. Arantxa Urretabizkaia erreferente (EBA-061/016)

Arantxa Urretabizkaia, besteak beste, oso apala, kritikoa, dotorea, eraikitzailea, ikuspegia zabaltzen duena dela dio. Edozeinek ulertzeko moduan idazten duela dio, dotoretasunari uko egin gabe. Ez dela inorekin ezkontzen uste du; gauza asko auzitan jartzeko gaitasuna duela dio. Soziala da baina niari kasu eginez aritzen dela iruditzen zaio.

265. "Zergatik panpox" lana, jario handiko idazkera (EBA-061/017)

"Zergatik panpox?" lanak oso harrituta laga zuen. Jario handiko idazkera gustuko zuen. Europarra eta modernoa euskaraz izatea posible zela ikusi zuen.

266. Emakumeen idazkerak sortutako galderak (EBA-061/018)

80. hamarkada bukaeran aurkitu zituen "Elsa Scheelen" eta "Egunero hasten delako". Ordurako Arantxaren lana ezagutzen zuen. Emakumea izanik gizonezkoak sentitzen duena idaztea, eta alderantziz, sinesgarria den zalantza sortu zitzaion.

267. Laura Esquivelen lanean inspiratuta (EBA-061/019)

Literaturan andrazko bitartekariak falta izan zaizkiola dio. Laura Esquivelen "Como agua para chocolate" liburua asko gustatu zitzaion. Lirismoa gustuko du. Hango ideiak baliatu zituen "Jostorratza eta haria" idazterakoan.

268. Emakumeen transmisio bideak, folklorearen bitartez (EBA-061/020)

Antropologia ikasteak asko lagundu zion. Dolores Julianoren lanak oso gustuko izan zituen; azaltzen zuen emakumeek folklorearen transmisioaren bitartez landu eta zabaltu dutela beren ikuspegia. "Mujeres que corren con los lobos" erreferentea izan zen beretzat.

269. Poesiatik gertu dauden lanak gustuko (EBA-061/021)

Bernardo Atxagaren "Obabakoak" lanari buruzko iritzia ematen du. Poesia eta poesiatik hurbil dauden lanak gustuko izan ditu.

270. Aitaren eta amaren etxea defendatuko dut (EBA-061/022)

Aitak kantuak, anekdotak, ipuinak kontatzen zizkien. Amak josi egiten zuen eta sortze prozesua ezagutu zuen berarekin. Prozesua azaltzen du. Asmoa gauza erreal eta ederra sortzeko gaitasuna zeukan amak. Amak ipuinak asmatzen zizkien jatorduetan, jan zezaten.

271. Xabier Leteren eta Imanolen poesia eta kantak (EBA-061/023)

Xabier Letek liluratu egin zuen. Irratian entzuten zuen eta handik urte batzuetara, bere olerkietara pasatu zen. Imanol ere gustuko izan zuen.

272. Haur literatura erakargarri (EBA-061/024)

Magisteritza ikasten hasi zenean, haur literatura aurkitu zuen. Mariasun Landaren "Iholdi" liburuak inpaktua eragin zion. Haur eta gazte literaturak erakarri egin zuen eta literatura zirela aldarrikatzen hasi zen. Haur literatura haurrek ere irakur dezaketen literatura dela dio.

273. Benedettiren lanean haur ahotsak topatu zituenekoa (EBA-061/025)

Eskoriatzan zegoela, hizkuntzaren lirikaren bila, Hego Amerikako liburu asko irakurri zituen. Mario Benedettiren "Primavera con una esquina rota" liburua oso gustuko izan zuen, haur ahotsak zeudelako.

274. Antzerkia ikasiz, sormena landu eta lotsa kendu (EBA-061/027)

Antzerkia idatzi izan du. Magisteritza bukatutakoan, HABEn egon zen urtebetez eskolak ematen. Handik, Donostiara joan zen antzerkia ikastera. Sormena lantzen eta lotsa kentzen lagundu zion.

275. Antzerkia, literatura, tailerrak, denak bat (EBA-061/028)

Etxebarrin betidanik egiten zuten antzerkia eta herriko taldearekin ikasten zuena irakasten aritu zen. "Hamalau heriotza" bertso-sortarekin antzerkia egin zuten. Monologoak egin zituen eta sormen kolektiboaren lanketan aritu zen. Tailer asko ematen hasi zen, antzerkiarekin zein idazketarekin lotutakoak. Ipuin kontaketa ere hasi zen. Asteburuetan idatzi egiten zuen.

276. Tradizioa, etengabe berri (EBA-061/030)

Tradizioa etenik gabe sortzen dena dela dio, ez dela gauza itxi eta zurruna. Ahoz jasotakoa gaur egunera ekartzeko ariketa egitea proposatzen du.

277. Jasotako kultura, galbahetik pasatu eta berritu (EBA-061/031)

Ahazkoa eta tradizioa, istorio txikiak, esaerak, kontaera, sineskera... jasotako kultura guzti hori geure galbahetik pasatzea proposatzen du. Tradizioa berritu beharra daukagula dio, jasotakoa emateko.

278. Oroimena, sormena, irudimena (EBA-061/032)

Irudimena oroimenak jantzi eta elikatzen du. Sormenak laguntzen du ulertzen pausuz pausu egiten direla gauzak. Iturburura joan beharra aldarrikatzen du.

279. Barne-indarra jatorrian bilatu (EBA-061/033)

Modernitatea infinituarekin lotuta geneukan, baina konturatu gara mundua segundo batean bukatu daitekeela. Hauskortasunaz ohartu garela dio. Barne-indarra non bilatu azaltzen du.

280. Literatura nola irakatsi (EBA-061/035)

Gazteei gauzak direla iruditzen zaie, ez egin egiten direla. Desikasten erakusten saiatu izan da bera. Asmora jotzeko joera dauka, oinarri-oinarrira. Mundu oso bat sortu da, euskaraz ikasteko. Azkenengo urteetan, literaturan bitartekarien falta sumatu du, literaturari leku egitea.

281. Literatura pasioz erakustearen garrantzia (EBA-061/036)

Literatura pasioz bizi duten irakasleak daudenean, galderak desberdinak dira. Azkenengo hamabost urteetan beherakada egon dela dio. Irakurtzen trebatu, entrenatu egin behar dela dio, eta horretarako ariketak egin behar direla.

282. Literaturarekin lantzen dena (EBA-061/038)

Arazoarentzat irtenbidea topatzeko, batzuetan ihes egin behar dela dio, eta literaturak aukera zabaltzen duela. Literaturak lantzen duena azaltzen du.

283. Irakurketa ozenaren onura (EBA-062/001)

Irakurketa ozena besteen aurrean egiten ikastearen garrantzia. Pausoak azaltzen ditu.

284. Ahotsaren ahalmena (EBA-062/002)

Ahotsean emozioa dago. Ahotsak daukan ahalmenaz berba egiten du. Hezkuntzari artea gehitu behar zaiola dio.

285. Literatura eta emozioak (EBA-062/003)

Irakasleek formazioa badutela, baina emozioekin konektatu behar dutela dio. Emozioak azaleratu eta aniztasuna lantzeko literatura tresna handia dela azaltzen du.

286. Literatura, ulertu barik sentitu (EBA-062/004)

Literaturaren helburua jakin-mina piztea eta emozioak eragitea dela azaltzen du. Umeei denetarik irakurtzeko gomendioa egiten du, dena ulertuko ote duten kezkarik gabe.

287. Gazteekin idazketa lantzeko ariketak (EBA-062/007)

DBHko ikasleekin idazketa landu izan du. Hainbat ideia azaltzen ditu, ariketa modura: olerkia lantzeko proposamena, ikusten duzuna deskribatzea, udako lehenengo bainua idaztea, etxean bakarrik geratu zirenekoa idaztea, koloreak deskribatzea zentzumenen bitartez...

288. Gazteekin idazketa lantzeko ariketak II (EBA-062/008)

Idazketa lantzeko ariketa bat proposatzen du: esaldi bat eman zentzumen bakoitzari, urdina agertzen dena. Gauzak kontatzeko beste era batzuk bilatzen saiatzen da. Bi gauza desberdinen arteko lotura kontatzea proposatzen du. Politena taldean egitea dela dio.

289. Gazteekin idazketa lantzeko ariketak III (EBA-062/009)

Istorio bati beste hasiera edo bukaera bat asmatu, liburu bateko esaldiak lotzen saiatu, beste bat izatera jolastu... Idazketa lantzeko ariketa modura egin daitezkeen adibideak azaltzen ditu.

290. Gazteekin idazketa lantzeko ariketak IV (EBA-062/010)

Hasiera-korapiloa-bukaera aukera bat dela azaltzen die gazteei, baina beste modu asko ere badaudela.

291. Idazketa eta irakurketa ozena, elkarrekin (EBA-062/011)

Bakoitzak idatzitakoarekin irakurketa ozena lantzen du tailerretan gazteekin. Hainbat adibide ematen ditu. Nia ukitzen laguntzen duela azaltzen du.

292. Literaturaren zeharbideak (EBA-062/012)

Emoziotik ekitea falta dela dio, irakurtzen dena norberarengana ekartzea. Gaitasuna landu egin behar dela dio, eta horretarako lekua eta denbora behar direla. Literaturarekin zeharka lantzen dena azaltzen du.

293. Sormenak beharrezko du kaosa (EBA-062/013)

Irakasleak gauza askorekin ikusten ditu. Sormenak eta literaturak kaosa eskatzen du eta talde-giroa sortzen du. Gauzak gaizki egiteari beldurra kendu behar zaiola uste du, eta umeen arteko lehiaketak kentzea.

294. Literatura, mundua ulertzeko (EBA-062/014)

Literaturak sentimenduak eta mundu-ikuskera biltzen dituela dio. Denbora hartu behar dela azaltzen du. Literatura mundua ulertzeko eta gezur batzuen bitartez agertzeko aukera ematen duela azaltzen du.

295. Arteak beharrezko (EBA-062/015)

Lirikotasuna beti ez da ulertzen, baina galderak sortzen dituela eta gauzak ulertzen eta moldatzen laguntzen duela azaltzen du. Bizitzan artea beharrezkoa dugula dio.

296. Idazketari kodeak gehitzen (EBA-062/016)

Idazketari arteak ahalbidetzen dituen bestelako kodeak gehitzearen garrantzia azaltzen du.

297. "Euskal Herrietako ipuinak" eta "Marixor" umeentzat (EBA-062/019)

"Euskal Herrietako ipuinak" eta "Marixor" erabili ditu haurrekin.

298. Literaturako klasikoak nola landu (EBA-062/021)

Euskal literaturako klasikoak gaur egunekoekin konbinatu egin behar direla dio. Dinamikak eta loturak egitea proposatzen du. Pentsamendua lantzeko ariketak nola egin azaltzen du.

299. Bizenta Mogel ezagutarazteko ariketa (EBA-062/024)

Bizenta Mogelen bizitza gazteen artean ezagutarazteko prestatu zuen ariketa azaltzen du.

300. "Argiaren alaba" eleberriaren oinarria (EBA-062/025)

Bizenta Mogel ezagutarazteko egindako ariketatik sortutakoa fikziora eraman eta "Argiaren alaba" eleberria sortu zuen.

301. "Argiaren alaba" nobelaren argitalpena eta zabalpena (EBA-062/026)

"Argiaren alaba" eleberria argitaratzeko zailtasunak izan zituen. Markina-Xemeingo udaletxeari eskatu zion laguntza eta autoedizioaren bitartez argitaratu zuen. Denak saltzea lortu zuen eta zabalpena egin zuen. Euskadi Saria jaso zuen. Denon Artean argitaletxearekin atera zuen edizio berria; gaztelerara itzuli zuen eta ume txikientzako alea ere egokitu du.

302. "Bizenta txiki" ipuina (EBA-062/027)

"Bizenta txiki", Bizenta Mogelen bizitzari buruzko ipuina ozen irakurtzen du. Liburua umeekin nola lantzen duen azaltzen du.

303. Bizenta Mogel (EBA-062/028)

Bizenta Mogel ez da ezaguna izan, osabaren itzalarengatik. Haren izaera, pentsamendua eta lana azaltzen ditu.

304. Klasikoak lantzeko, testuingurua beharrezko (EBA-062/029)

Klasikoetara iristeko, pertsona eta tokiko eta munduko testuingurua azaltzea beharrezkoa dela azaltzen du. Garaiak baldintzatzen gaituela pertsonak esplikatzen du.

305. Euskal telebista ez da estrategikoki erabili (EBA-062/032)

Telebistako euskara arraroa eta beharrezkoa egin zitzaion. Hasiera ikusi zuen baina garapenik ez; euskal telebistarekin oso haserre dagoela dio. Bere ustez telebista ez da erabili euskal mundua elikatzeko.

306. Euskarazko kate on eta modernoa egingarri (EBA-062/033)

Gauza garrantzitsuak ETB2ra eramaten direla dio, euskara modu ezegokian txertatuta gainera. Amorratu egiten duela eta min ematen diola esaten du. Euskarazko kate on eta modernoa egiteko baliabideak badaudela dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com